

KONBENTZITZEKO ARGUDIATU

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen ziklorako
argudio testuak lantzen hasteko sekuentzia didaktikoa

Joaquín Dolz
Auguste Pasquier

Itzulpena eta egokitzapena:

Pilar Labaien
M^a José Sánchez
Patxi Sierra

Euskarazko itzulpena eta egokitzapena:

Jon Iñaki Izarzelai
Olibia Galparsoro
Orreaga Zubeldia



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

Material hauek Genevako Lehen Hezkuntzako zerbitzuan (Hizkuntzen Sailean) moldatu dira, eta zerbitzu horren baimenarekin itzuli eta egokitu dira.

Material hauek gelan honako hauek esperimentatu dituzte: M^a Asunción Comellak (Iruñeko “Jesusen Bihotza” ikastetxea), Mercedes Moreno Santiagok (Lizarrako “Tierra Estella” Bigarren Hezkuntzako Institutua) eta Félix Pérez Calvok (Tuterako “ETI” Bigarren Hezkuntzako Institutua).

Izenburua: Konbentzitzeko argudiatu

Egileak: Joaquín Dolz; Auguste Pasquier

Itzulpena eta egokitzapena: Pilar Labaien; M^a José Sánchez; Patxi Sierra

Euskaratzea: Jon Iñaki Izarzelai, Olibia Galparsoro, Orreaga Zubeldia

Argitaratzailea: Nafarroako Gobernu. Hezkuntza eta Kultura Saila

© Nafarroako Gobernu. Hezkuntza eta Kultura Saila

Azala: Ilune Diseño

Marrakziak Javier Etayo

Fotokonposizio eta fotomekanika: Pretexto

Inprimaketa:

ISBN: 84-

Lege-gordailua: 00

Sustatzaile eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Presidentzia Departamentua
Tolosako Nabak, 21
Telefono eta faxa (948) 107121

AURKEZPENA

Irakaskuntza berriak ezarri izanak ahalegin berezia eskatu die irakasleei. Ez da bakarrik curriculum berriak zehaztea eta egokitzea, baita lan metodo berriak garatzea ere, bertan adierazten diren helburu didaktikoak praktikan betetzeko. Lan honetan lagundu asmoz, hezkuntza administrazioa irakasleei erreferentziazko materialak eskura jartzeko ahalegin handia egiten ari da, bide berriak iradoki asmoz, proposamen berritzaileak begizta ditzaten. Ahalegin honen fruitu, ale honek jadanik argitaratutako bildumei beste bat gehitzen die.

Orain aurkeztu dugun liburu hau, zalantzarik gabe, ezaugarri hauek dituen bilduma bati ekiteko hasiera aparta da. Hizkuntza eta Literatura arlorako sekuentzia didaktikoa duzue hau, eta jatorrizko bertsioa ospe handiko genevar espezialista birena da. Oso iradokitzailea gerta daitekeen lan metodoa proposatzen die arloko curriculumaren zehaztapenak osatu behar dituzten irakasleei.

Proposamena interesgarria da. Alde batetik, egileek berek hitzaurrean dioten bezala, Nafarroarako ezarri den Hizkuntza eta Literatura curriculumean jasotzen den aho eta idatzizko adierazpena irakasteko ikusmoldearekin zeharo bat dator. Bestetik, aurkezten duen diskurtso mota, argudiozkoa, ikasgeletatik kanpo dago aspaldi, nahiz eta gizartean garrantzia handia izan. Hezkuntzan arreta handiagoa eskaini beharko litzaioke, gizarte demokratiko bati begira bederen.

Argitalpen honek argia ikusi dezan lagundu dute Genevako kantoiko hezkuntza arduradunek, baita jatorrizko bertsioaren egileak diren Joaquin Dolz eta Auguste Pasquierrek eta itzulpenean, egokitzapean eta esperimentazioan parte hartu duten aholkulari eta irakasleek ere. Jaso ezazue denok gure esker on zintzoa.

Jesús M.^a Laguna

HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARIA

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	7
Argudiatzen garaiz irakastearen alde	9
Sekuentzia didaktikoa: <i>Konbentzitzeko argudiatu</i>	13
Sarrera	15
Sekuentzia didaktikoaren helburuak, edukia, ebaluaketa eta garapena	17
1. fasea: Idazketa proiektua prestatzea	21
2. fasea: Hasierako ekoizpena	23
3. fasea: Ikaskuntza tailerrak	27
1. tailerra. Argudio testua identifikatzea	28
2. tailerra. Komunikazio egoerak	36
3. tailerra. Argudioak sailkatu	42
4. tailerra. Norberaren iritzia eman eta defendatu	44
5. tailerra. Argudioak garatu (I)	52
6. tailerra. Argudioak garatu (II)	58
7. tailerra. Iritziak zalantzan jarri	62
8. tailerra. Negoziatu eta amore eman	66
4. fasea: Hasierako ekoizpena berrikusi eta berridaztea	71
5. fasea: Banakako ekoizpen berria	77
Bibliografia	81
I. Eranskina: Argudio testuaren testu antolatzaileak	83
II. Eranskina: Erantzunak	87

HITZAURREA

Bigarren hezkuntzako ikasleen ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko sekuentzia didaktikoak prestatzeko bidean.

Bada adierazpena berez ikasten dela uste duenik, baita ahozko eta idatzizko adierazpena ezin dela sistematikoki irakatsi uste duenik ere; horien ustez, egingo diren ahaleginak gorabehera, azkenean, ikasle batzuek egoki adierazten jakingo dute, eta beste batzuek, berriz, ez.

Beste batzuek, arrazoi osoz pentsatzen dute, ikasle guztiek beren adierazpena nabarmen hobetu dezaketela irakaspen egokia emanez gero. Arazoa ahozko eta idatzizko adierazpena nola irakatsi jakitean datza. Hizkuntza irakasleak gramatika, lexiko, aditz jokatzeko, ortografia eta abarren irakaspenerako nolabait moldaturiko materiala badu ere, ahozko eta idatzizko espresio irakaspenerako, berriz, ikasleak abilezia konplexuagoak menperatu eta integratu beharra izanik, irakasleek material gutxi eta eskasa daukate.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakaslegoari eskaintzen diogun sekuentzia didaktikoa egoera hori konpontzera datorren lan eredua da. Halaber, egun Europako zenbait herrialdetan ahozko eta idatzizko adierazpenaren irakaskuntzan moldatzen ari diren diseinu didaktiko berritzaileen eredu ere bada.

Adibide hau Genevako bi espezialistek sortu eta Nafarroako irakasle talde batek itzuli, egokitu eta esperimentatu dute. Material hau Genevako kantonamenduko frantseseko irakasleei zuzenduriko sekuentzia didaktikoen zati bat da; gaztelania, euskara edo ingeles irakasleentzat baliagarri dena. Gure proposamenak *ahozko eta idatzizko adierazpena irakats daitekeela eta sistematikoki irakatsi behar den* ustean du oinarri. Horretarako, liburuki honetako moduko sekuentzia didaktikoen bidezko lan-eredua proposatzen dugu. Beharbada gure lan-ereduaren ezaugarriak azalduta proposamena argiago geldituko da:

- Sekuentzia didaktikoaren nozioa molde berean aplikatzen zaio bai ahozko zein idatzizko adierazpenari.
- Sekuentzia didaktiko bakoitzak *testu genero* bat du abiapuntu, (ipuina, enigma kontakizuna, argudio eskutitza, editoriala, elkarrizketa, hitzaldia, eztabaida...) ala *diskurtso mota* bat (narrazioa, argudiatzea...).
- Edozein sekuentzia didaktikok berarekin du *testu korpus* berezia: Testu genero bati loturiko ahozko eta idatzizko dokumentuak, bai ekintzak antolatzeko erreferentziatzat zein ikasleen inpirazio iturritzat erabiltzeko.
- Sekuentzia didaktikoaren oinarritzko egiturak hiru maila ditu:

- Talde bateko ikasleen gaitasuna eta zailtasunak ikusteko *hasierako zirriborro* baten ekoizpena.
 - Testu arazodunei buruzko *ikaskuntza tailerren edo moduluen* prestakuntza.
 - *Bukaeran*, ikasleak berak tailerretan ikasitako nozio eta trebetasunak erabiltzeko aukera eman-go duten ahozko zein idatzizko testu bat *ekoiztuko da*.
- Sekuentzia didaktikoak ikasleen *espresio arazoak* aintzat hartu eta konponbiderako instrumentuak proposatzen ditu hainbat mailatan:
- *Komunikazio egoeraren* irudikapena aldatuz.
 - Edukiak moldatzen eta *testu plan* batean antolatzen lagunduz.
 - *Azken testua* osatzeko egokienak diren unitate linguistikoak aukeratzen eta erabiltzen lagunduz.
- Sekuentzia didaktikoak *ekintza multzo* bat proposatzen du (bakarka, talde txikian ala talde handian egiteko). Zenbait *prestakuntza jarduera* ere proposatzen ditu, hala, ikasle bakoitzak lan-modu desberdinetara egokituz, nozio eta trebakuntza desberdinetara jo ahal izango du.
- Sekuentzia didaktikoa ondoko ideian oinarritzen da: *idazketa berridazketa ere bada*. Ikasleak bere testua berrikusteko eta berridazteko *langaitzat* hartu behar du.
- Sekuentzia didaktikoaren lehenengo bertsioa zenbait ikastetxetan martxan jarriko da. Lortutako emaitzen arabera, aldakuntzak egingo zaizkio irakasleei zabaldu aurretik.
- Sekuentzia didaktikoa lantzeak *ikastaldeari egokitzea* eskatzen du. Material hauek irakasleari lana errazten diote, baina ikasleen trebetasun eta adierazpen arazo mailaren arabera egokitu egin behar dira.

Ahozko eta idatzizko adierazpena lantzea prozesu motela izanik, denbora eta praktika eskatzen du. Horregatik, goiz hastea komenigarria da oso, baita irakaskuntza maila bakoitzerako jarduera egokiak prestatzea eta ikasleen hasierako ahalmenak garatu daitezen aski denbora ematea ere. Ikaskuntzaren aurrerakuntza bermatzeko gure lan metodoak *tentsio bat sortzea beharrezko ikusten du; ikasleek eza-gutzen dutenaren eta ikasteke dutenaren artean alegia*. Horretarako, zera proposatzen dugu: irakaskuntza maila bakoitzerako ikaskuntza helburu batzuetatik abiatuz, testu aniztasuna lantzea. Ikasleek jabetu behar dute, testu genero baten ezagutza tratamendua erraztuko duten elementu komunetaz ez ezik, testuari izaera berezia ematen dioten desberdintasunez ere.

Bukatzeko, gure proposamenak helburu bikoitza duela esango dugu. Batetik, *idatzizko adierazpenaren irakaskuntza sistematizatzen lagundu*, era arautuan, nahiz eta balizko aldakuntzetara zabalik. Bestetik, sekuentzia didaktikoak *diseinu curricularraren ardatz bihurtu nahi ditugu*. Sekuentzia didaktikoen bitartez (dispositibo didaktiko igorgarri gisara aurkezturik) adibideen bidez eman nahi izan dugu irakaskuntza ziklo bakoitzeko eredua.

Horrela bada, *konbentzitzeko Argudiatuz* sekuentzia didaktikoa lan metodo baten hasierako ilustrazioa besterik ez da. Egunetik egunera herrialde askotan zale gehiago dituen metodo hau egokia ikusten dugu Nafarroarako ere. Gainera, uste dugu gure proposamena bat datorrela komunitate honetako hizkuntza eta literatura arloko curriculumak ahozko eta idatzizko adierazpenaren irakaskuntzaz duen ikuskerarekin.

Joaquin DOLZ
Hezkuntza Zientzien eta Psikologia fakultatea
Ginebrako Unibertsitatea (Suitza)

Auguste PASQUIER
Frantses zerbitzua
Genevako kantonamenduko
Irakaskuntza Publikoko Saila

ARGUDIATZEN GARAIZ IRAKASTEAREN ALDE

Joaquin DOLZ

Argumentazio egoerak, argudio testuak

Gure eguneroko bizitzan etengabe darabilzkigu argudioak. Edonolako egoeratan agertzen zaigu: eztabaida pribatuetan, familian, auzokoekin, lagunekin; politikoen arteko jendaurreko eztabaidetan, ikasleen artean, lankideen artean; prentsan: editorialak, iritzi orrialdea, kritika artikulua; auzitegietan: abokatu eta fiskalen jardunean; e.a.

Demagun *argudiatze egoera* bat. Adibidez, aita batek bere semea konbentzitu nahi du denbora hobeto bana dezan kirolaren eta ikasketen artean. Argudiatze egoera guztietan bezala, ezaugarri batzuk nabarmentzen dira. Batetik, egoera gai bati buruzko *ikuspegi kontrajarrian* oinarritzen da (adibide honetan aitak eta semeak ikuspegi ezberdinak dituzte denbora librearen antolakuntzari buruz). Bestetik, argudiatzaileak *jarrera jakin bat* hartzen du gaiari buruz (aitak semeak kirolean denbora gutxiago eta ikasketetan gehiago eman beharko lukeela uste du). Gainera, argudiatzailea bestea *konbentzitzen* saiatzen da *arrazoiak* ala bestearen sentimenduak erabiliz; beste molde batera esanda, pertsona bakar edo talde baten *iritzi edo jarrerak aldarazten* saiatzen da (aita semearen ikuspegia aldatzen saiatzen da).

Argudiatzea, bere iritziak aldarazteko helburuarekin bestearekin burututako elkarrizketatzat har daiteke.

Azkenik, argudiatzaileak bere helburua lortuko badu, hartzailearen jarrera aztertu, aurreikusi eta kontuan hartu beharko du (aitak semea kirolzale amorratua dela badaki, horregatik, ikasketa orduak gehitzea proposatzen dio semeak gehien estimatzen duen kirol horri ordu gutxiago eskaini gabe).

Bestalde, argudiatze egoera guztiak ez dira ahozko ala idatzizko argudiatze diskurtso bihurtzen. Adibideko ereduari aitak era honetan joka dezake: irakaspena duen istorio bat kontatu, denbora librearen antolaketaz narrazio autobiografikoa egin, eztabaidan hasi (argudio elkarrizketa) ala argudio testu bat moldatu (lehenik bere jarreraren aldeko argudioak azalduz, gero kontrako argudioak errefusatu eta azkenik, aterabide bat negoziatuz). Diskurtso mota baten aukeraketa ez dago zuzenki komunikazio egoeraren menpe. Aitak diskurtsoa bere helburuak lortzeko egokitasunaren arabera aukeratuko du.

Argudio diskurtsoak hizkuntza bere osotasunean erabiltzea dakar: argudiatze egoera, *sorturiko testuaren* egitura eta ezaugarri linguistikoak. Argudio diskurtsoak berarekin beti *argudioak* eta kontraargudioak ditu. Argudio hauek iritzi bat garatu ala ezeztatzeke dira. *Kontraargudioak*, berriaz, aurkakoaren argudioak ezeztatu ala gezurtatzeko dira.

Argudiatzen garaiz irakastearen alde

Ohiko irakaskuntzan irakurketa eta idazketa lantzeko narrazio testuen erabilera nagusia ez da inorentzako kontu berria. Argudiatzearen irakaskuntza sistematikoa berandu sartzea ohitura bihurtu da. Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko irakaskuntza honen emaitzak eskasak iruditzen zaizkigu askori.

Gaur eguneko ikerketek, aldiz, erabat ezeztatu dute idatzizko hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko ikuspegi murriztaile hau. Guzti honi buruz zenbait argibide emango ditut.

Batetik, genero diskurtsibo bakoitzak bere elementu bereizgarriak ditu. Elementu hauek ikaskuntza berezia eskatzen dute. Adibidez, argumentazioak, beste genero diskurtsiboen aldean, zenbait estrategia diskurtsibo eta ezaugarri linguistiko ditu. Zaila iruditzen zait ikasleek argumentazio gaitasunak garatzea genero narratiboak landuz.

Bestetik, psikologia ikerketek ahozko eta idatzizko argumentazioen garapenaren arteko desoreka aditzera ematen dute. Haurra, berari dagokion gaietan, gai da aski goiz bere ikuspegia defendatzeko (adibidez, gurasoak konbentzitzeko paga handiagoa eman diezaioten, litxarreriak eros diezazkioten...); haurrak nagusiek emandako kontrako arrazoi bakoitzari nahiko erraz egokitzen dio bere argudioa.

Elkarrizketa argumentatiboan bi hizlariak aurrez aurre agertzea funtsezkoa gertatzen da bestearen ikuspegiaren kontzientzia hartu eta hari egokitzeke. Bestalde, askoz zailagoa gertatzen zaio haurrari idatzizko argumentazioa duen bakarrizketa bat ekoiztea (adibidez protesta erreklamazioa den eskutitz bat idaztea). Horretarako, behar izango luke:

- a) Hartzailearen ikuspegia orokorki aurreikusi.
- b) Bere ikuspegia argudio sorta baten bidez justifikatu eta garatu.
- c) Kontrako argudioak ezeztatu.
- d) Argudioen arteko segida eta artikulazioa planifikatu.
- e) Denontzako jarrera onargarria negoziatu.

Ahozko elkarrizketa argumentatiboan, haurra aurkakoaren jarrerari errazago eta bapatean egokitzen zaio. Idatzizko argudio egoeretan, aldiz, ahalegin askoz handiagoa egin beharko du testuaren azken helburua eta hartzailea identifikatzeko. Arrazoi horregatik soziologoak nahiko ezkor azaltzen dira argumentazio testu idatziaren garapen "naturala" aztertzerakoan. Beren ustez, haurra 10/11 urterekin iritzi bat azaltzeko gai da; 13/14 urterekin bere testua moldatzen eta bera-rengandik bereizten hasten da. 16 urterekin azkenik, negoziazioa nagusitzen da.

Didaktikako adituek psikologoaren ezkortasuna kritikatu egiten dute. Berauek psikologoaren ikerketen emaitzak erlatibizatu egiten dituzte; argu-

Argudio testuak ekoizteko gaitasuna garatzeak ekintza ezberdinak lantzea eskatzen du:

- a) *Argumentazio egoerak egiaztatzea eta alderatzea.*
- b) *Argudio mota ezberdinak ekoiztea.*
- c) *Argudioak antolatzea.*
- d) *Aurkakoarekin negoziatzea.*
- e) *Zenbait estrategia linguistiko aurrera eramatea.*

mentazioaren barne konplexutasuna gaitasun argumentatiboaren garapen berantiarraren arrazoi bakarra ez dela argudiatuz. Orain artean lehen hezkuntzan argumentazio testua sekula sistematikoki landu ez dela azpimarratzen dute.

Landu gabe utzi ezezik, azaldu ere ez da egiten ikasleen irakurliburuetan. Orientazio ziklora iritsi arte kasik ez da azaltzen. Oraintsu egindako Suitza romandar kantonamenduetako irakurliburuari buruzko inkesta batean, iritzi testuen erabateko gabezia somatu dut. Oraindik ere balio-judizioak eta iritzi moralak ipuinen bidez zeharka adierazten dira. Egileak ez ditu botatako iritziak bere egiten. Eskolak, oharkabean, iritzi testuen zentsura praktikatzen du. Argumentazioa arazo iturri eta neutraltasunaren aurkakotzat jotzen da, arazoak konpondu, negoziatu eta ikasleen agresibitatea hitzez bideratzeko bitartekoa izan beharrean. Bitxia bada ere, manipulazio molde indirektoak hobeto onartzen dira komentitzeari loturiko estrategia diskurtsiboak baino. Arazo hau larria da ikuspegi ideologikotik ezezik, eskolako ikaskuntzaren ikuspegitik ere.

Jakina da, adibidez, irakurtzeko gaitasuna garatzeko era askotako ikaskuntza beharrezkoa dela. Ez da gauza bera narrazio testua, matematika jarduera bati erantzuna emateko kontsigna, entziklopediako artikulua bat, prentsa editoriala

ala kexa eskutitz bat ulertzea. Matematika kontsignak irakurketa integral zehatza eskatzen du; narrazioak bere osotasunean ulertzea eskatzen du; entziklopediako artikulua, berriz irakurketa xehea eskatzen du. Argudio testuen ulermena ere ezberdina da eta zera eskatzen du: argudiatzailearen iritziak jasotzea, azpi-arrazonamenduak, ironiak, kontra-argudioak, amore emateak, testuko argudioen arteko zolia e.a. Irakurketa-aren irakaskuntza anitz eta eraginkorrari begirai, iritzi testua lehen eskola urteetan landu behar da.

Baina, argudio testuak haurren eskura jartzeko hutsa aski al da hauek irakurri, behatu eta aztertu ditzaten?

Itxura denez, ez. Ikusmolde berrizaleenek irakurketa eta idazketa ariketen arteko interakzio beharra azpimarratzen dute. Lehenengo mailatan, ahozko argumentazioa eta irakurketa menperatzea idatzizko argumentazioaren ikaskuntzaren oinarri da. Horren ondoren, *argudio testuen ekoizpenak ahozko eztabaiden jarduera aldatu eta hauen ulermena erraztu egiten du*. Ikuspegi honen baitan ulertu behar dira ondoren aurkeztuko ditudan sekuentzia didaktikoak.

(Journal de l'enseignement primaire 43. zenbakian azaldutako testua)

KONBENTZITZEKO ARGUDIATU

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen ziklorako
argudio testuak lantzen hasteko sekuentzia didaktikoa

Egokitzapen honi buruz

Egokitzapen honen egileak Nafar Gobernuako Hezkuntza Saileko prestakuntza eta berrikuntzetarako aholkulari izanik, 1994.ean Joaquin Dolz-ekin izan ginen lan jardunaldi batzuetan. Jardunaldi hauetan zenbait sekuentzia didaktiko aurkeztu ziren, Genevako zerbitzuak frantsesaren irakaskuntzarako moldatu, esperimentatu eta ebaluatu zituenak.

Europako zenbait herrialdeetan hizkuntzaren irakaskuntzari loturik gertatzen ari diren aurrerapen didaktikoekin bat egiteko aukera ezin genuela galdu iruditu zitzaigun.

Aldi hartan aurkeztutako sekuentzietatik, argudio testuarena hartu dugu, arrazoi hauek direla eta:

- Sekuentzia honetan proposamen didaktiko bakar batean literatura eta hizkuntzaren arloetako ikuspegi komunikatiboa gauzatzen da.
- Hizkuntza irakatsi eta ikasteko bide berritzailea proposatzen du.
- Argudio testua lantzen du, gure eskola jardueretan ia erabat ahantzia dagoena.
- Sekuentzia didaktikoaren egitura berritzailea eta iradokitzailea da eta ikasteko molde berri baten alde apustu egiten du: tailerretan antolatutako idazketa proiektuaren alde alegia.
- Irakasleei gelan era ezberdinean lan egiteko aukera ematen diete.

Egokitzapen honetan jarraitutako irizpideei dagokionean, hau da azpimarragarriena:

1. Gure egoera soziokulturalari ahalik eta hobekien egokitzen saiatu gara.
2. Helburu didaktikoak errespetatu ditugu, beraiekin erabat ados baikaude.
3. Sekuentzia didaktikoaren egitura ere, bere izaera berritzaileagatik, zegoenean utzi dugu.
4. Jatorrizko testuen lekuan, irakasleei eta gaztelaniari egokituriko testu berriak jarri ditugu. Egoera honek jardueretan aldaketak egitera behartu gaitu, baita tailerren bat aldatzera ere.
5. Zenbait kasutan jatorrizko ekintza batzuk ezabatu ditugu; beste batzuetan, aldiz, ekintza horiek zabaldu edo ekintza berriak moldatu ditugu.

Materialaren egileei, Auguste Pasquier eta Joaquin Dolz-i, gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu, beren parte-hartze zuzenagatik eta etengabeko jarrera abegikorragatik.

Euskeraz egindako itzulpenaren inguruan

Kurrikuluaren Diseinu eta Garapenerako Unitate Teknikoak proposatuta euskaratu dugu Argudio Testua lantzen duen liburuxka hau. Ikastetxeetarako baliabide didaktiko interesgarria iruditu zitzaigun, batez ere DBHri begira, baina baita Lehen Hezkuntzako azken urtean erabiltzeko ere.

Erabiliaren erabiliz, argudiatze egokiak eskolatik gizartera plazara daitezela.

Material hau erabiltzeari buruz

Material honek ez du izan nahi irakasleak programazio betetzailerik soil gisa era hertsian erabiltzeko proposamena. Proposamen hau lanerako eredu malgu eta zabala da, arloko irakasleen eskura, beren erabakiak hartzeko lagungarri.

Gogoetarako, berrikuntzarako eta norberak bultzatuko dituen materialetarako orientabide ere izan nahi du, hala autonomia profesional handiagoa lortze bidean lagunduz.

Beraz, departamentu didaktikoen egitekoa, material hauekiko, ondokoa izango da:

1. Ikasleekin zehaztutako helburuak balioztatu, baita hauen ikasteko estiloak ere.
2. Moldatutako tailer eta jardueretan zer erabili, zer egokitu, zer ordezkatu eta zer ezabatu erabaki, baita ondokoei buruzko erabakiak hartu ere:
 - Sekuentzia didaktikoa azaldutako eran erabili.
 - Edukia, metodoa, ala biak egokitu.
 - Edukia edo metodoa ordezkatu, egokiagoa irizten den beste batekin.
 - Testu eta jarduera hutsalak edo desegokiak alde batera utzi, hala baderitzo.
 - Irakasleentzat egokiak irizten diren material, testu eta jarduera osagarriak gehitu.

Horrela bada, adibidez, sekuentzia didaktikoan lanari ekiten zaio testuak ekoizten hasteko proiektu baten moldaketarekin. Hemen proiektu konkretu bat proposatzen da. Hala ere, egokiagoa litzateke irakasleak bere gelaren ezaugarriak eta ikasleen beharrak kontuan hartuta, beste idazketa proiektu batzuk proposatzea.

Bukatzeko, proposamenaren baitako kontzeptu pedagogikoa errespetatuz, departamentu didaktikoek beren erabakiak hartuko dituzte. Horretarako, aurreko elementu guztiak kontuan hartuko dituzte, ikasleen behar eta interesei hobeki erantzuteko.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN HELBURUAK, EDUKIAK, EBALUAZIOA ETA GARAPENA

Helburu didaktikoak

1. Bestelako testu mota batzuen artean argudio testua ezagutu.
2. Argudio testu sinpleak planifikatzeko gaitasuna hobetu.
3. Argudio testuaren zenbait marka linguistiko ezagutu eta bereiztu.
4. Argudio egoera baten ezaugarri nagusiak identifikatu.
5. Arrazoituriko iritzia adierazi.
6. Komunikazio egoera desberdinetan argudio testu sinpleak ekoiztu.

Edukiak

Kontzeptuzkoak

1. Argudio testuaren intentzioa.
2. Argumentazio egoera: eztabaida, adostasuna, desadostasuna, negoziaketa, helburua, hartzailea.
3. Argudiatzea/ kontraargudiatzea.
4. Argudio testuaren zenbait marka linguistiko: arrazoiak, ondorioak, aurkako arrazoiak antolatze-ko. Amore emateko formulak, hartzailearekiko loturak (“nirekin bat etorriko zara... ”); argudioa indartzeko modalizatzailak (“...-z konbentziturik nago”); ondorioaren murrizketak (“kasuren baten...”, “edonola ere...”); iritzia adierazten duten aditzak; ezadostasunak adierazteko esamoldeak.

Prozedurazkoak

1. Argudio testu motz eta sinpleak manipulatzeko eta birmoldatzeko.

2. Argudio testu sinpleen plangintza eta ekoizpena. Lan hauek aurrez emandako testuinguruari buruzko parametro zehatzen arabera egingo dira.
3. Argudio testuen eraldaketa, jarraibide ezberdinak erabiliz.
4. Argudio testuko berezko testu antolatzaileen manipulazioa, ordezkatzeko bidez, zabaltzeko bidez, sarrrera emanez e.a.
5. Argudiatze egoera ezberdinen arabera, hainbat argudio testu manipulatzeko eta eraldatzeko.

Jarrerazkoak

1. Argudio testuaren garrantzi soziala aintzat hartu.
2. Hurkoaren iritzia errespetatu eta baloratu.
3. Negoziaketaren garrantzia baloratu.
4. Testu mota hau planifikatzearen eta berrikustearen eraginkortasuna kontuan hartu eta balioztatu.

Ebaluazioa

Ebaluazioa ikaskuntza bidearen baitako prozesu jarraitua da; ikasleek ikasitakoaren ebaluazioa, irakasleen lanaren ebaluazioa, prozesuaren beraren ebaluazioa.

Litekeena da etengabeko ebaluazio honen argitan irakasleak beharrezkoak ikusten dituen moldaketak egitea unean-uneko beharretara egokitzeko.

Ebaluazioa, ikaskuntza prozesua balioztatzeko bidetzat eta irakaslearen esku-hartze pedagogikoa hobetzeko tresnatzat hartzen dugu; ez ikasleak sailkatzeko sistema gisa.

Ikasleen ebaluazioa sekuentzia osatzen duten jardueren bitartez egiten da. Ikasle bakoitzak **gelako koaderno** bat eraman behar du, bertan idazteko sekuentzia bakoitzari dagozkion ondorioak, kontzeptuak, laburpen-taulak... Koadernoak aldizka begiratu eta ebaluatzen balioko du. Azken bi ariketek ikasle bakoitzaren ekarpena balioztatzen balioko dute, bai taldean baita bakarkako azken lanean ere.

Taldeko lanek ere arreta eskatzen dute (sekuentzia osatzen duten ariketa guztietan bakarkako lanaren aurrekari dira). Horretarako, irakasleak aldizka oharrak hartuko ditu ikasle bakoitzaren **bakarkako erregistro orrian**, kontuan hartuz ea taldean integratuta dagoen, talde lanari ekarpenak egiten dizkion, eta talde lana aurrera ateratzeko behar diren tresna guztiak onartu dituen.

Ebaluazio prozesua hiru unetan banatuko dugu:

– **Hasierako ebaluazioa** bigarren faseari dagokio: testu bat sortzea ikaslearen aurre-eskemak behatzeko. Garrantzitsua da gelan ematen diren egoera errealetatik abiatzea, eta ez irakasleak ikasleei buruz duen balizko ideia batetik.

– **Prestakuntza ebaluazioa**. Prestakuntza ebaluazioan ikaslea ikastun aktibotzat jotzen da. Ebaluazio honek ikasketa prozesua egoki garatu dadin nola parte har dezakegun eta zein motatako ekintzak egin ditzakegun erakutsiko digu. Testuaren lehen bertsioa idazterakoan, aurrera jarraitu ahal, egileak etengabe berrirakurtzen du idatzitakoa. Berrirakurtz askotan bere lehen proiektua aldatu egiten du. Testuaren berrirakurketa, berrikusketa eta berridazketa ikasten diren jarduerak dira. Ikuspegi honetatik, berrikusketa testu ekoizpenaren ikaskuntzan une garrantzitsua da. Prestakuntza ebaluazioa luzeagoa da eta ebaluaziorako une jarraituak eta ezberdinak ditu bere baitan. Sekuentziaren beraren prozesua ere ebaluatuko du irakasleak. Irakasleak aurreikusitako proposamenen, ekintzen eta helburuen “arrakasta” maila balioztatuko du.

– **Azken ebaluaketa** bi unetan banatzen da:

4. unea: Lehenengo ekoizpena berrikustea eta berridaztea.

5. unea: Testu bat bakarka ekoiztea.

Une honetan, jasotako ezagutzak eta prozesuan parte-hartze aktiboa izan duten ebaluatzen da, bakarka nahiz taldeka. Hasierako egoeratik hona jasotako aberastasun maila behatzean eta objektiboki emaitzak balioztatzean dago gakoa.

Azken ebaluazioa, estimazio guzti hauen sintesia da; ebaluazio horretan zein irizpide erabiltzen diren ikasle guztiei azaldu beharko zaie.

Ebaluazio orriaren proposamena

Hasierako ekoizpenetik azken ekoizpenera, tailerretan landu izan diren edukiek lagunduta izan diren aurrerapenez jabetzeko, bitarteko bat moldatzea interesgarria izango da.

Garbi gera bedi eredu hau proposamen bat baino ez dela, eta ez dela derrigorrezkoa hemen azalduko elementu guztiak ebaluatzea. Bestalde, departamenduak egoki edo desegoki irizten dituen elementuak sartu ala kendu ditzake, beti ere taldearen ezaugarriak kontuan hartuta.

Orri hau ez da eduki bakoitza neurtzeko. Bere funtzio nagusia irakasleentzako argudio testuaren ikaskuntzan zehar behaketa gida izatea da.

<i>Deiturak</i>			<i>Izena</i>
<i>Landutako gaiak</i>	<i>Bakarkako hasierako ekoizpena</i>	<i>Bakarkako bukaerako ekoizpena</i>	<i>Ekoizpen berria</i>
1. Argudio testuen identifikazioa			
2. Interpelazio formularen erabilera			
3. Gairako sarbidea			
4. Iritzia/Ondorioa			
5. Bere iritzia defentsa eta koherentzia			
6. Argudio kopurua			
7. Arrazoituriko argudio kopurua			
8. Kausa edo ondorioen antolatzaileak			
9. Negoziaketa argudioak			
10. Amore emateko formulak			
11. Modalizazioak/ Aditzak baldintzetan / ziurtasuna / Aukerak			
12. Testua egituratzeko antolatzaileak			
13. Adibideen erabilera			
14. Bukaerako adeitasun formularen erabilera			
15. Beste ohar batzuk			

Sekuentzia didaktikoaren garapena

1. Fasea. Proiektuaren aurkezpena

Ikasleei idazketa-proiektu bat prestatzeko proposamena aurkeztea. Irakaslearentzako orientabideak. Garrantzitsua da ikasleak zer egiten ari den jakitea eta egiten duenari zentzua aurkitzea.

2. Fasea. Hasierako ekoizpena

Ikasleek argudio testuari buruz dituzten aurre-ezagutzak diagnostikatzean datza. Testu baten hasierako ekoizpena proposatzen da. Sekuentzia didaktikoko edukien garapena aurre-ezagutzen araberakoa da.

3. Fasea. Ikaskuntza tailerrak

Ikaskuntza espezifikoko tailer hauetan, ikasleak argudio testuari buruzko bere aurre-ezagutzak berrikusiko dituela uste da. Berrikuspen horren ondorioz ezagutza hauek aldatu eta aberastu egingo ditu.

4. Fasea. Berrikusketak eta berridazketak

Fase honetan ikasleak 2. faseko testua hartuko du, eta ikasitako edukien arabera, **berrikusi** eta **berregingo** du.

Azken fasea. Azken ekoizpenerako jarduerak

Beste testu bat sortuko du, berak bakarrik, gelan landutakoa alde batera utzita. Landu diren edukiek balio dutela frogatzea da kontua.

1. FASEA

IDAZKETA PROIEKTUA PRESTATZEA

Irakasleentzako orientabide didaktikoak

Irakasleak ikasleei argudio testuen *idazketa eta ikaskuntza proiektu orokorra* aurkezten die.

Idazketa proiektua ekoizpen bat egiteko gelako erabaki orokorra da. Erabaki honek ematen eta ziurtatzen die ikasleei helburuak lortzeko motibazioa. Sekuentzia didaktikoaren lehen fase honetan irakasleak eta ikasleek egingo duten lanari buruz eztabaidatuko dute eta argudio testuaren gaia erabakiko dute.

1. Irakasleak gogoraraziko die argudio testuaren xedea *iritzi* bat aurkeztea, defendatzea eta, gainera, lagun bat edo gehiago *konbentzitzea* dela. Beraz, argudiatzeak hartzailearengan zerbait aldatzea edo iritzi bat eztabaidatzea du helburu.

2. Irakasleak eguneroko egoerak proposatuko ditu, non eskuarki argudio testuak irakurtzen edo sortzen diren (prentsako iritzi orriak, kexu eskutitzak...). Ikasleei eskatuko die beraiek parte hartu eta iritzia agertuko luketen egoera bat aurkitzea.

Ikasleek beren gustuko gai baten inguruko eztabaidan parte hartu nahi izanez gero, ikaskuntza proiektua ikuspegi honetatik landu daiteke (adibidez: gurasoak zerbaitetaz konbentzitzeko eskutitza idatzi).

Bestalde, argudio testu bat idaztetik hastea proposatzen dugu, alegiazko argudio egoera batetik abiatu- turik. (ikus 2. fasea: “Charaguako arazoak”). Sekuentzia didaktiko honen helburuetako bat argudiatze gaitasunak garatzea da. Horretarako, bestearen ikusmoldea, komunikazio egoeraren ezaugarri bereziak, e.a. kontuan hartuko dira.

Egoera erreal edo ikasleak izandako esperientzietatik hurbilegi dauden gaiak blokeoak sortzen dituztela eta gaitik urruntzea zaildu egiten dutela behatu dugu. Ikaskuntza tailerretan (3. fasea) alegiazko argudio egoerak eta ikaslearengandik hurbileko egoerak txandakatuko ditugu, adibidez eskolako ordu- tegia.

Esan dezagun hemengo egoerak nondik nora jo erakusteko direla. Begibistakoa da idazketa proiektu bat ikastaldeari egokitua izan behar dela. Horretarako, urtean zehar egiten diren idatzizko eta ahozko jarduerak kontuan hartzea aholkatzen dugu, eta baita jarduera horietan ikasleen iradokizunak txerztatzea ere.

Irakasleak ikasleei jakinaraziko die hainbat saio argudio testuei eskainiko zaizkiela, iritziak idatziz defendatzen ikasteko, bai eskolan bai eguneroko bizitzan suertatzen diren egoeretan.

2. FASEA

HASIERAKO EKOIZPENA

Irakasleentzako orientabide didaktikoak

Fase honetan zehar ikasleek hasierako argudio testu bat ekoiztuko dute.

Testu hori idazteko, denboralditxo bat eman beharko da bi alderdi hauek prestatzen: gaia eta ekoizpen egoera.

Prestakuntza honek ondoko molde hau har dezake:

- a) Irakasleak ikasleekin udalaren funtzionamenduari buruz hitz egingo du; horren ondotik, zenbait gairi buruzko ikasleen ezagutzak osatzen joango da: udala, alkatea, zinegotziak, e.a...
- b) Irakasleak “Charaguako arazoak” testua irakurriko du, ikasleekin komentatu eta beharrezko azalpenak emango ditu. Egoera asmatutakoa dela esango die, baina Latino Ameriketako herri eta herrixka askotan horrela daudela: osasun arazoak, hezkuntza, komunikabideak, e.a...
- c) Irakasleak garbi utziko die ikasleei eskatzen zaiena **idatzizko txostena** dela (ez eskutitza). Testua idaztearen arrazoiak azpimarratuko ditu. Garrantzitsua da garbi uztea:
 - Ikasle bakoitzak izango duen eginkizuna. (ikasle bakoitzak bere gustuz aukeratu beharko du bere egitekoa. Asmatutako egoera motibagarriagoa suerta dadin, pertsona bakoitzak bere zinegotzigoaren izena asmatu egingo du.
 - Txostenaren helburua: gainontzeko zinegotziek norberaren proiektua lehentasunezkoztat jo dezatela.
 - Txostenak proposamena landuko duen batzordeari bidaliko zaizkio.

Irakasleak ez dio testuari oharrik egingo, ezta zuzenduko ere. Ikasleek testuok 4. fasean berrikusiko dituzte.

Egoera: “Charaguako Arazoa”
(Ikasleei irakurri eta azaltzeko)

Charagua 5.500 biztanledun Bolibiako herria da, arazo handiak dituen herria. Zenbait urte itxaron ondoren, Europako Elkarteko nazioarteko harreman batzordetik 120.000 € laguntza jaso dute, giza arazoak konponatzeko.

Herri honetako arazo nagusiak honako hauek dira:

Errepide eta garraiobideak: Herria asfaltodun errepide batetik 20 kilometrotara dago. Errepide horretara iristeko egoera kaskarreko bideak hartu behar dira. Errepide berri bat eraikitzeak eskualdeko ekonomia garatzea ekarriko luke.

Egitasmoa: Errepide berria egitea.

Hezkuntza: Charaguako eskola publikoa udaletxeko gela bat da. Gela horrek ez ditu gutxieneko baldintzak betetzen. Ministerioak irakaslea irregulartasunez bidaltzen die. Egoera oneneko familietako haurrak 50 kilometrorara dagoen herri bateko barnetegi batera joaten dira. Biztanleen % 60a alfabetatu gabea da.

Egitasmoa: Eskola eraiki eta irakaslea kontratatzea.

Osasuna: Ez dauka osasun zentrorik eta hurbilen dagoen ospitalea 50 kilometrorara dago. Medikuek batek hamabostean behin ordubetez etxabe batean kontsulta pasatzen du.

Egitasmoa: Osasun zentroa eraiki eta mediku bat kontratatzea.

Kultura eta kirolak: Biztanleeri futbola gustatzen zaie baina ez dute kirol-gunerik.

Egitasmoa: Kirol-gunea eraikitzea.

Ekonomiako udal batzordeak arlo bakoitzeko zinegotzigoari **idatzizko txosten** bat eskatuko dio (ez eskutitza). Txosten horretan egitasmoak lehentasuna duela defendatu beharko da egitasmo bakoitzerako aurrekontutik zenbat erabiliko den erabakitzeko.



1. JARDUERA

(Bakarkakoa)

Nahi duzun zinegotzigoko eginkizuna har ezazu:

- Garraio arlokoa.
- Osasun arlokoa.
- Hezkuntza arlokoa.
- Kultura eta kirol arlokoa.

Ekonomiako udal batzordeari luzaturiko txosten idatzi baten bidez, Charaguarentzako zure egitasmoaren garrantzia arrazoitu ezazu. Saia zaitetz Batzordeak zure proiektua lehenatasunezkoztat jo dezan, horretarako:

- Beste egitasmoekiko daukan presa arrazoitu.
- Beste egitasmoek zurearekiko duten menpekotasuna frogatu.

Charaguako udala

Zinegotzigoko txostena:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. FASEA

IKASKUNTZA TAILERRAK

1. Tailerra:

ARGUDIO TESTUA IDENTIFIKATZEA

Irakaslegoarentzako orientabide didaktikoak

Lehenengo tailerraren helburua ikasleak argudio testua beste testu mota zenbaitzuren artean bereiztea da.

Ikasleek 1., 2. eta 3. testuak irakurriko dituzte. Hiru testu ezberdin dira hauek (azalpenezkoa, argudiozkoa eta narrazio testua); hirurok ere gai berari buruzkoak, hots, otsoa. Binaka 1. eta 2. ariketei erantzungo diete.

Bi jarduera hauen zuzenketa kontuz egin beharrekoa da. Eztabaida pizteko une egokia da hau, argudiatzeari buruzko zenbait kontzeptu argitzeko (iritzia, ikuspegia, eztabaida e.a.) eta hiru testuok dituzten aldeak ikusteko.

3. jarduera bakarka egitekoa da eta beraren bitartez ikasleek jarduera osoan zehar izango dituzten bi nozio bereganatzea lortu nahi da: *egilearen jarreraren nozioa eta egileak gaitzetsitako jarrera*.

4. jarduerak, bakarka egitekoak, bi nozio berri sartzen ditu: *aldeko eta kontrako* argudioak.

Azkenik, 5. jarduerak, taldeka egitekoa denak, berriz ere argudio testua beste testu mota batzuetaz bereizteko aukera ematen du. Irakasleak aukeraketaren arrazonamendua azpimarratuko du: 6. eta 9. testuak argudio testuak dira, **iritziak** defendatzen dituztelako, zerbaiten **alde** agertzen direlako eta **konbentzitzen** saiatzen direlako.

Tailerraren bukaeran, irakasleak 2. fasean ekoiztutako testua gogoraraziko die: “Zuen testuak ba al dauka antzik 1. tailerrean irakurritako argudio testuekin?”.

1. JARDUERA

(Talde txikian)

1, 2 eta 3 testua irakurri ondoren, ondoko galdera hauei erantzungo diete:

1. Zein testutan da otsoa fikziozko istorio bateko heroia?
2. Zein testutan ematen du egileak otsoaren definizioa?
3. Zein testutan da otsoa eztabaidagaia?
4. Hiru testuetatik zeinetan ageri da iritzi pertsonalen bat?
5. Zein testutan kontatzen digu egileak istorio bat?
6. Egileak zein testutan azaltzen dizkigu otsoari buruzko hainbat iritzi?
7. Zen testutan ematen digu egileak otsoari buruzko informazioa?
8. Zen testutan konbentzitu nahi du egileak irakurlea ikusmolde berezi bat har dezan?
9. Zein testu hartuko zenuke informazio iturritzat, klaseko lan bat egiteko?
10. Zein testu erabiliko zenuke haur txiki bati denbora-pasa ipuin bat kontatzeko?

1

**Otsoa (*Canis lupus*)**

Otsoa (*Canis Lupus*). Zenbait zakur arrazarekin erraz nahas daitekeen haragijalea; batzuetan zakur arraza hauekin hibridatzera ere irits daiteke. Zakurren familiakoen aldean zango luzeak, buru handia, eta isats motza daukate.

Nafarroan aspaldidanik ez da otso talde finkorik. Hala ere, noizean behin inguruko lurraldeetako ale batzuk inguratzen dira, artaldeetan sarraskiak eginez.

1962. urtean Lerinen otso bat akabatu zuten, egun era naturalean gordetzen dena. 1981ean Urbasako Otxoportilon ar bat akabatu zuten, eta larru eta buru-hezurra Nafar Gobernuako Mendi Zerbitzuan daude. Berriki (1986) Biotan (Zaragoza) negu bukaeratik Bardeak eta Cinco Villas inguruan antzemandako beste ale bat bota zuten.

Espezie hau mortuko berezkoa da. Gau bakar batean bide luzea egin dezake. Ezaugarri horrek, bere zuhurtzia ezagunak lagunduta, etengabe jasaten duen jarraipena gaituzten lagundu diote.

Otsoaren irudiak oraindik bizirik dirau euskarazko zenbait leku-izenetan.

2. JARDUERA

(Bakarka)

Lot itzazu gezi bidez ondoko izenburuak testu mota ezberdinekin.

Izenburua	Testu mota
Otsoa	Narrazio testua
Otsoak babestu behar al dira?	Azalpenezko testua
Otso baten istorioa	Argudio testua



2

Otsoak babestu behar al dira

Mendeak dira gizakiak otsoa ehizatzen duela, etsai arriskutsutzat duelako. Egia da, bai, otsoak gizakiak ehizatzen dituen animalia berak ehizatzen dituela eta artaldeak mehatxatzen dituela. Hala ere, elikatzeko baino ez du hiltzen. Ematen dituen baraualdi luzeek eraginda janaldi bakar baten 6 kilo haragi jatera irits daiteke.

Gizakiaren otsoarenganako gorrotoa iragandako gertakizun ikaragarriek eta beldurrek ere sortu izan dute. Adibidez, gerra garaian otsoek gizaki ahulduak irentsi izan dituzte. Baina kasu hauek erabat muturrekoak dira.

Otsoak amorruren gaitza ere kutsatu zezakeela ikusi zuenean gizakiak, ingurutik garbitzea erabaki zuen. Horregatik, 500.000 otso bakarrik gelditzen dira munduan. Zenbait espezie, Estatu Batuetako otso gorria kasu, hamarrenera murriztuak izan dira. Zoritxarrez, oraindik ere otsoen akabatze honek herrialde askotan berdin dirau, Errusian adibidez. Otsoak hainbesteraino mehatxatu direnez, denbora gutxi barru desager daitezke

Egia esanda, otsoak oso animalia beharrezkoak dira naturan, ahulduta edo gaisoturiko animaliak erasotzen baitituzte. Era horretara, “aukeraketa naturala” bultzatzen dute: animalia indartsuenek bakarrik bizi-iraun eta birsortzen dira.

Otsoak desagerturiko zenbait eskualdetan basahuntz kopurua neurrigabe haziz oreka naturala hautsi izan dela ere egiaztatu da.

Geldi dezagun otsoaren akabatze basati hau. Behar beharrezkoa da neurriak hartzea basapizti maitagarri hau babesteko.

(Environement et vie aldizkaritik)

3

Otso baten istorioa

Hezurra eta azala besterik ez zen otso batek osasunez gainezka zegoen zakur bat aurkitu zuen. Une batean berriketan gelditu eta otsoak erran zuen: “Hain ondo elikaturik mantentzen zaituen sekretua zein den azaldu behar didazu, ni, zu baino indartsuagoa izanik, ahultasunez akabatzen nago eta”.

Zakurrak zera erantzun zion: “Ez dago sekretu handirik, zu ere ni bezalakoa izan zaitezke...”.

“Eta zer da, bada, egin behar dudana?” eten zuen otsoak jakinminez. Zakurrak jarraitu egin zuen: “Gizakiaren zerbitzuko izan behar duzu: Gau eta egunez bere etxea zaindu... lapurrengandik babestu”. “Baina orduan, oso erraza da!. Nekaturik nago basoan beti hotzak eta gosez akabatzen egoteaz. Banoa zurekin”.

Etixeruntza zihoazela, otsoa zakurrak lepo inguruan zuen arrastoaz ohartu eta galdegin zion: “Zer duzu orbain hori, lagun?”. “Ez da deus berezirik. Arriskutsu samartzat naukatenez, egunez lotu egiten naute. Baina gero gauetan askatu egiten naute eta nahi dudak tokira joaten naiz.”

Otsoak informazio hau jakinda, harri eta zur gelditu zen; geratu eta esan zion. “Baina orduan, ezin duzu nahi duzun guztia egin?”. “Beno, egia da ezetz baina tripa beti betea daukat”, baieztatu zuen zakurrak. “Bada baldintza horiekin ez nator bat”. Hitz horiek esanda otsoak korrikari eman zion eta han utzi zuen zakurra, preso egotearen abantaila guztiez goza zezan.

(Esopo)

3. JARDUERA

(Bakarka)

Berrirakur ezazu 2. testua eta, ondoren, adierazten diren paragrafoak kopia itzazu:

- Eztabaida pizten duen galdera, testuari izena ematen diona, alegia, kopia ezazu.

.....

.....

- Idazleak berak galdera honi erantzuten dion parrafoa kopia ezazu.

.....

.....

.....

.....

**Beha ezazu**

Kopiatu duzun paragrafo hau egilearen ikusmoldea da.

- Testuaren egileak salatu nahi duen egoera azaltzen den esaldia kopia ezazu.

.....

.....

.....

**Beha ezazu**

Kopiatu berri duzun paragrafo honek egileak gaitzetsitako egoera azaltzen du.

4. JARDUERA

(Bakarka)

Bigarren testuan otsoen babesaren aldeko adierazpenak kolore batez azpimarra itzazu. Beste kolore batez, berriz, kontrakoak. Ondoko fitxa honetan kopia itzazu.

Aldeko argudioak:

.....

.....

.....

.....

Kontrako argudioak:

.....

.....

.....

.....

5. JARDUERA

(Taldeka)

4, 5, 6, 7, eta 8 testuak irakurri itzazu eta galderei erantzun.

Hauetako zeintzuk joko zenituzke argudio testutzat?

.....

Zergatik? (Arrazoitu ezazu zure aukera)

.....

4

Itsu bitsa itsasoan
 Labarrean arroka
 Sakonetikazalera
 Biziaren borroka (bir)
 Txalupa txaplaka doa
 Ta arraunak orroka.

Kaioa bihurtzen da kai
 Kaia bihurtzen kaio
 Kukuak ta harriak
 Haizearen aurka jo (bir)
 Balearen etorrera
 Mendearen bataio.

Karrikatik karkara
 Karkaratik karrika
 Elizpeko haitzulotan
 Mutikoen irrika (bir)
 Arratsean olatuak
 Denborari zirrika.

Kantauriko gatz urtua
 More gainean hori
 Aitonaren haurtzaroa
 Arrantza larre jori (bir)
 Mendetik mendera doa
 Denbora eder hori.

(Gozategi taldearen kanta)

5

Adiskidetasunaren eta gainontzeko pertsonak errespetatzearen alde

Berriz ere nire gurasoek ez dute ilusio handirik Felipe gurera konbidatzeko. Haientzat, alproja hutsa da! Badakit tontokeriak egiten dituela: biltegietan gauzatxoak ostu, auzoko gutunontzietan eskutitzak nahastu, ezkutuan erre...

Adin bera daukagu eta duela 10 urte ezagutzen dugu elkar. Ez dut sarritan ikusten baina beti berriz bera ikusteko gogoia izaten dut. Tontokeriak tontokeria, bere laguna naiz, gauza onak egiteko ere gai dela badakidalako. Beti defendatu izan dut, egin duenarekin ados egon ez arren. Niretzako, hori da lagun izatea: bere dohain eta akatsekin, den bezala onartzea.

Gurasoei adiskidetasun hori azaltzen saiatzen naiz eta ulertzen hasi dira, dagoeneko, baina oraindik ez daude lasai.

Feliperen lekuan jarri eta bera ulertzen saiatzen naiz. Tontokeria horiek deigarri gertatu eta interesgarriena egiteko egiten al ditu? Ez dago kanpoko itxuraz fidatzerik. Felipe, barne barnean, oso borondatetsua eta sentibera da.

Uste dut gainontzeko pertsonak errespetatzeko, ez dagoela kanpoko itxuraz fidatzerik, urrutitxoago baik. Zenbait pertsonak laguntza eta ulermena behar izaten du, baina ez dira ausartzen esaten. Gu gara zein arazo duten asmatu behar dugunok.

Nikolas 13 urte.

(*Prête-moi ta plume... ambassadeurs de l'amitié liburutik.* Castor Poche Flammarion)

Ederra dauka!!!



ANDALUZIAKO JUNTA: Helduen heziketa semipresentziala. 4. gaia: Drogak.

Txanourdintxo

Paisai alpetarrean bizi zen zazpi urteko neskatila hura maitagarria zen. Bere janzkera zela eta Txanourdintxo deitzen zioten.

Haren maltzurkeri moralak zeukan itxura fisiko atsegina erabat ezabatzen zuen. Herriko jakintsuek ezin zuten ulertu nola bil zitezkeen izaki bakar batean harrokeria, krudelkeria eta berekoikeria hain era beldurgarrian.

Bere gurasoek borroka egiten zuten Txanourdintxo konbentzitzeko.

– Amonari askaria eramango al diozu?

– Ez.

Eta oihuak eta mehatxuak hasten ziren. Heziketa arazoak daudenean sortzen diren gauza guztiak. Eztabaidaren ondoren, Txanourdintxok egunero pinudi eder bat zeharkatu behar izaten zuen bere amona bakarrik bizi zen etxera iristeko.

Txanourdintxo etxera sartu eta kasik ez zuen amona agurtzen, askaria zuen otarra utzi eta presaka alde egiten zuen, maitasun zantzurik eman gabe.

Basoan bazen San Bernardo zakur handi eta otzan bat. Zakurra bakarrik bizi zen eta ehiztariek ematen ziotena jaten zuen.

Zakurrak Txanourdintxo ikusten zuenean, isatsa mugituz pozik hurbiltzen zitzaion neskatilari. Txanourdintxok harriak jaurtitzen zizkion. Zakurrak penazko ainuriz alde egiten zuen. Ankerkeriak egin arren, zakurra egunero hurbiltzen zitzaion.

Behin batean, neskatilaren buru txiki, maltzur eta arriskutsuan ideia bat sortu zen. Zergatik jasan egunero betiko eztabaida gogaikarria eta ibilaldi hura amonaren etxera joateko?.

Txanourdintxok otarrean gazta bat, pastel bat eta ezti apur bat zeraman. Pozoia gaztan?. Ez zioten botikan salduko. Gainera, ez zeukan dirurik. Tiro bat?. Ez. Aitaren eskopeta astunegia zen. Ezingo zuen marniatu.

Bat-batean bere irudimenean amonaren ohe ondoko mahaitxoko laban zorrotzak dizdiz egin zuen.

Erabakia hartua zeukan. Txorien kantuek eta loreen usain gozoek ezin zuten bere gorrotoa apaldu. Etxe inguruan berriro ere zakur handia suertatu zen. Txanourdintxok oihu egin zion harri bat jaurtikiz.

Atea jo zuen.

– Sar zaitez Txanourdintxo.

Amona ohean zen. Minutu batzuk geroago oihuak entzun ziren.

Labana heriotza iturri bihurtu behar zenean, Txanourdintxo botata lurrera erori zen. San Bernardo otzanak salto egin zuen haren gainera. Txanourdintxo mugitu ezinik zegoen zakurraren pisua zela eta.

Amona, likore kopa bat hartu ondoren, izualditik atera zen. Telefonoz herrira deitu zuen.

Txanourdintxo hiriko psikiatra aditu batek aztertu zuen. Geroago, haurrentzako heziketa bereziko zentro batean sartu zuten.

Amona, bere zakur salbatzailea lagun, basoa utzi eta seme-alabekin bizitzera joan zen.

Hogei urte geroago, Txanourdintxo, erizain diplomatua, Afrikara joan zen misioetan.

– Nondik datorkizu zure umetako gaiztakeria hori? galdetu zion kazetari batek.

– Telebistan ikusita. Erantzun zion hegazkineko mailak igotzen ari zen bitartean.


Afrikan, sekula telebista ez baina beste gauza batzuk ikusi zituen beltz batek Txanourdintxo hil egin zuen.

Ignacio VIAR

Ura bizi da, defenda ezazu



Gure itsaso, erreka eta lakuak gizakiak hondatutako guneeetako batzuk dira. Azken hilabete hauetan milaka izurde hilik azaldu dira mediterranean kostaldean. Sarraski hau iparraldeko itsasoko eta Baltikoko foka arrunten %80ko heriotzari gehi dakioko, baita Mexikoko kostaldeko ehundaka izurderen heriotzari eta Estatu Batuen ekialdean zenbaturiko fokan erdian heriotzari ere. Egoera honek mundu osoko zientzialariak larritu zituen. Ikerketa zorrotzen ondotik, ondorioak argiak izan ziren: itsasoen kutsadurak izaki hauengan tumoreak, antzutasuna eta immunologi sistemako gabeziak sortzen ditu. Honek eraginda, birusen izurriteen menpe erortzea erraztu egiten da.



Zoritxarrez hau ez da milaka izurde, bale e.a desagertu edo desagertzeko zorian jartzeko arrazoi bakarra. Legez kanpoko arrantza moldeak, arrantza baliabideen neurrigabeko esplotazioa, espezie hauek bizi dituzten arazo larrien adibide batzuk besterik ez dira.

Beharrezkoa da berandu baino lehen neurri zehatzak hartzea.

Baina itsasoko ugaztunen aldeko kanpaina ez da GREENPEACE-ek ibai eta itsasoen bizitza babesteko duen helburu bakarra. GREENPEACE-ek beste hauengatik ere borrokan dihardu:

- Kutsadurarik gabeko Mediterraneo bizi baten alde.
- Gure itsaso eta ibaiak kutsatzen dituzten isurketa kutsagarriez behin betiko bukatzearen alde.
- Itsasoen desnuklearizazioa lortzearen alde. Arma atomikodun itsasontzi edo ozeano eta portuetan dabilzan errektore nuklearrez propulsaturikoak iritzi publikoaren aurrean salatzearen alde.

Gure ibai eta itsasoak defendatuz zure bizitza bera ere defendatzen duzu.

Egin zaitetz GREENPEACE-eko bazkide. Oso gutxirekin asko egin dezakezu.

6. JARDUERA

Marka ezazu ondoko taulan zure ustez zein testu mota diren 4, 5, 6, 7, 8, eta 9 testuak.

Testua	Narrazio testua	Argudio testua	Azalpen testua
4			
5			
6			
7			
8			
9			

2. Tailerra:

KOMUNIKAZIO EGOERAK

Irakasleentzako orientabide didaktikoak

Tailer honetako ekintzen helburua taldea argudio egoeraren ezaugarriez ohartaraztea da: egilea, ezadostasuna edo eztabaida egoera, helburua, hartzailea eta testua azaltzen den tokia.

1. jardueran ageri diren egoera/arazoak irakurrita, hauxe lortu nahi da: deskribatzen diren egoerak oinarritzat hartuta, zer nolako testuak sortu ahal izango liratekeen “imajinaraztea”. Zenbait aterabide posible aurki ditzaten animatu beharko genituzke.

A) 1. Egoera: “Euskaraz..., non ez?”.

Aterabide posibleak:

- Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politika saila.
- CAMPSA enpresari.
- Egunkarietara gutuna.

B) 2. Egoera: Salmenta ibiltaria eta bereizkeria.

Aterabide batzuk:

- Egunkarietara eskutitza bidaltzea.
- Nafarroako Gobernuko Giza Eskubideen batzordera eskutitza bidaltzea.
- Udaleko gizarte zerbitzura eskutitza bidaltzea.

Behin egoerak ongi ulertu eta gero, 10 eta 11 testuak irakurriko dira eta bi hauetariko egoeraren batekin lotuko dira. 10 eta 11 testuen irakurketek “zuzendariari eskutitzak” sailean aurkezteko bidea ematen dute.

3, 4 eta 5 ariketetan bete beharreko taulak ikasleak argudiatze egoeren ezaugarriez konturatu daitezzen pentsatuta daude.

12. testuaren irakurketa (autopistako eskutitza) prentsan azaldutako 10. eta 11. testuekin aldera daiteke.

5. jardueran ikasleek egoera erreal bat ekoiztuko dute: norbait zerbaitetaz konbentzitu behar izan duten egoera. Adibidez gurasoak paga handitu diezaieten konbentzitu.

1. JARDUERA

(Bakarka)

Irakur itzazu bi egoerak eta galderei erantzun.

1. Egoera:
 Bittor Iribas autoari gasolina botatzera gelditu da gasolindegi batean. Bertako makinak euskaraz hitz egin dionez, harrituta gelditu da eta beste gasolindegi batzuetan makinek euskara erabiltzea nahi luke.

2. Egoera:
 Aralarko mendilerroa artzainen bizibidea dela eta, mendian ibiltzea gustoko duen emakume batek bertako artzainen etorkizunari buruzko eztabaida burutzeko informazioa nork eman behar duen galdetzen du.

Nora bidal dezake bere idazkia? Aterabide desberdinak eskain itzazu:

.....

Norengana joko du emakume honek arazoa argitzeko?

.....

Nortzuk konbentzitu nahi ditu?

.....

.....

2. JARDUERA

(Bakarka)

10 eta 11. testuak irakur itzazu eta galderei erantzun.

– 10. testua: zenbakidun egoerari dagokio.

– 11. testua: zenbakidun egoerari dagokio.

10

Euskaraz..., non ez?

Ostiral arratsaldea da eta gidatzen dudan kotxeari argi gorria piztu zaionez, Euskal Herrian Campsak duen gasolindegira inguratuz, bete ezak! esan diot bertako langileari.

Agindua txukun betetzen hasi orduko, horra hor non entzuten dudan ahots batek osatutako esaldi hau: “adi egon, superra botatzen ari zara”, eta bukatu ondoren, “eskerrik asko, bidaia on”. Ordaindu ondoren, nolaz zegoen euskaraz galdetu diot langileari. Jaso erantzun jatorra hau izan zen: “makinak euskaraz behar genituela esan genioan nagusiari, eta berak euskaraz jarri dizkik”. “Bejondeizuela!” agurtu nuen langilea, eta ez da gutxiagorako.

Askotan bete diot “sabela” autoari, behin baino gehiagotan gasolindegi berean, baina lehengoan entzundakoaz hausnarketa txiki bat egin ondoren, berehala ohartu naiz euskara zabaldu beharraren garrantziaz. Izan ere, ustekabean harrapatu ninduen esaldiak, eta ni bezalaxe, atzerriko, erbesteko edo bertako edonork entzungo du esaldia.

Gertatutakoaren berri lagunartera zabaldu nuenean, nahiz eta gasolindegi ezberdinetan izanak ziren, horrelakorik ez zutela topatu esaten zidaten. Guztiek albiste “berriari” oniritzia eman ondoren, langileek makinak euskaraz jartzea lortu bazuten, bezerook eskaera bera egin behar genuela zioen norbaitek.

Albistetxo bat besterik ez da izan nirea, baina euskararen alde egiterakoan, euskaldunok eguneroko bizitzan zenbat aukera galtzen ditugu? Askok dugu egiteko, eta ea lortzen dugun Europako hizkuntzik zaharrenetarikoa, bere Euskal Herrian nagusi izatea.

Bittor Iribas

11

Ai Aralar!

Etorkizun beltza ote duzun nago, Aralar. Ez naiz mendian bizi, ez naiz menditik ezta mendiko haziendatik bizi, baina Aralarko parte bat naiz ni ere. Egunero ikusteko, noizbehinka pasiatzeko eta arnasa hartzeko “besterik” ez bada ere, Aralarkoa naiz. Jabetza kontuak alde batera utziko ditut, mendiak ez “zureak” eta ez “nireak” inorenak ez direla pentsatzen baitut. Norbaitenak izatekotan gureak dira errekak, gureak dira parkeak, gureak dira mendiak.

Aralarri buruz, mendilerroaren etorkizunari buruz, nik ere iritzia badut eta eman dezakedala uste dut. Mendira gozatzera joaten garen

ibiltariok eta Aralarren magalean bizi garenok ere gaiaren inguruan hitzegin dezakegulakoan nago.

Gaur egun artzainak Aralarren ez dira duela 100 urte bezala bizi. Nahi adinako aurrerapenik ez duela egin bere langintzak? Ez zaiela behar hainbat laguntza eman? Egungo baldintzetan irautea ezinezkoa zaiela?... Horrela izango da, baina duela urte batzuk baino egoera hobean bizi dira, eta, beraz, ez dira erdi aroan bezala bizi.

Informazioarik gabe hizketan aritzea aurpegiratu ahal didate artzainek. Horixe da hain juxtu behar eta nahi dudana-duguna, informazioa. Nork eman behar

digu, ordea, eta noiz, Aralarri buruz dagoen informazioa kaletarroi? Mendian ibili “besterik” egiten ez dugunoi nork eman behar digu Aralarren lehena, oraina eta etorkizunerako proiektuen berri? Artzainek? Agintariak? Herritarrek?

**Joxepa Madariaga
(Gaintza)**

3. JARDUERA

(Taldeka)

Bete itzazu ondoko bi taulak:

10. testua:

Testuaren egilea:	Bittor Iribas
Arazoa:	
Helburua:	Euskara zabaldu beharraren garrantzia
Hartzaileak:	Gasolindegietako bezero eta langileak, Nafarroako Gobernuako Hizkuntz Politika Saila eta Nafarroako egunkariak.
Argitaratze tokia:	Nafarroako egunkarietako bat.

11. testua:

Testuaren egilea:	Gaintzako bizilagun bat
Arazoa:	Aralar mendilerroari buruzko informazioa nork eman behar duen
Helburua:	Aralarri buruzko eztabaida bultzatzea
Hartzaileak:	
Argitaratze tokia:	Nafarroako egunkari bat.

12

**VASCO
ARAGONESA**



AUTOPISTA VASCO ARAGONESA CONCESIONARIA ESPAÑOLA S.A.
BULEGOAK (Mantentze atala)
Tel.: 44 88 32 - 1192 postakutxa - Logroño

Logroño, 2.000ko apirila 24

Andrea

Kalea

31.000 IRUÑEA

Tel.: 44 88 32 - 1192 postakutxa - Logroño

Andere Agurgarria:

Aurtengo apirilaren 18an, Subijanako ordainketa gunean zuk aurkeztutako idatziari erantzuten diogu.

Bertan diozunez, Bilbotik etorrira Gasteizko irteerako seinaleztapena nahasia iruditzen zaizu, "Gasteizera Murgiatik barrena" diolako zure ustez.

Egia esan, gure kartelak honela daude: lehena 5 irteeratik 5.000 metrotara, beste bat 5 irteeratik 1.000 metrotara eta hirugarrena irteeraginean bertan. "Gasteiz-Murgia" hitzak aipatzen dira denetan, halere ez du esan nahi Murgiatik igarotzen denik, baizik eta irteera honetatik besteak beste Gasteiz eta Murgiara joan daitekeela.

Horregatik, Bilbotik etorrira Gasteizera heltzeko seinaleztapena zuzena dela uste dugu.

Bestalde, zuk diozu erabil daitekeen irteera bakarra dela. Eta Bilbotik etorrira har daitekeen irteera logiko bakarra izan arren, 32 kilometro aurrerago "Burgos-Gasteiz" seinaleztapena duen beste ordainketa gune bat dago, eta hortik ere Gasteizera irits daiteke, nahiz eta behar baino ibilbide luzeagoa eginez.

Sentitzen dugu zu erratu izana, baina ez dugu uste seinaleztapenaren akats baten ondorio denik.

Adeitasunez,

AUTOPISTA VASCO ARAGONESA
CONCESIONARIA ESPAÑOLA S.A.

Antonio Martínez Marquizo
Antonio Martínez Marquizo
Ekoizpen Zuzendaria

4. JARDUERA (Taldeka)

3. jarduerako tauletara begiratzuz, 12. testuko egoeraren ezaugarriak deskriba itzazu.

Testuaren egilea:	
Arazoa:	
Helburua:	
Hartzaileak:	
Argitaratze tokia:	

5. JARDUERA (Binaka)

A) Ahozko edo idatzizko egoera bat aurkez ezazue, non norbait zerbaitetaz konbentzitu beharko duzuen.

B) 3. jarduerako tauletara begiratzuz, ekoizpen egoeraren ezaugarriak deskribatu.

Ekoizpen pertsonaleko egoera:

Testuaren egilea:	
Arazoa:	
Helburua:	
Hartzaileak:	
Argitaratze tokia:	

3. Tailerra:

ARGUDIOAK SAILKATZEA

Irakasleentzako orientabide didaktikoak

Tailer honen helburua gai istilutsu baten aurrean (eskola-ordutegia) ikasleei ikuspegi baten *aldeko eta kontrako* argudioak bereizten irakastea da. Argudioen egileak zeintzuk diren bereizten ere irakatsiko diegu (gurasoak, ikasleak, irakasleak).

Tailer honetako jarduerak ez dute ikasleentzako inolako arazo berezirik sortzen, baina argudioak oso erne irakurtzea eskatzen dute. Beraz, jakinarazi behar zaie adi irakurri behar dituztela argudioak, sarrera bikoizdun taulan kokatzeko (1. jarduera).

Jarduera bukatzean, taldekako zuzenketa egin ondoren, ikasleek beren iritziak eman ditzakete, ahoz zein idatziz, jarduera osagarritzat. Gaiari buruzko eztabaida bat antolatzea ere gomendatzen da.

1. JARDUERA

(Taldeka)

Bigarren hezkuntzako ikastetxe batean “lanaldi jarraitua lehenengo zikloan” gaiari buruzko eztabaida egin zen. Ordukoan, familiek, ikasleek eta irakasleek beren iritzia azaldu zituzten. Sailka itzazu erabilgaitako argudioak 3 mailatan: (a) **aldekoak**, (b) **kontrakoak**, (c) **ez alde eta ez kontra**, eta saiazaitez argudioa eta egilea lotzen.

Ondoko taulan, idatz ezazu argudio bakoitzaren zenbakia.

	<i>Aldekoak</i>	<i>Kontrakoak</i>	<i>Ez alde ez kontra</i>
Gurasoak			
Irakasleak			
Ikasleak			

2. JARDUERA

(Bakarka)

Pentsa ezazu eztabaida horretan parte hartzeko gogoia sartzen zaizula. Idatz ezazu lerro batzuetan gaiari buruz duzun jarrera. Aukeratu zure iritzia defendatzeko 2 edo 3 argudio. Hobeto konbentzitzeko izateko, pentsa ezazu zeintzuk izan daitezkeen zure aurkariaren argudioak. Hau bezalako fitxa bat erabil ezazu.

<i>Deiturak:</i>	<i>Izena:</i>
Gaia:	
Aldeko argudioak	
1. argudioa:	
2. argudioa:	
3. argudioa:	

Argudioen zerrenda

1. Guztiz aldekoa, ikasleek ikastetxera joan etorrria behin bakarrik egiten dutelako eta arratsaldea libre izaten dutelako ikasteko eta eskolaz kanpoko ekintzak egiteko.
2. Aldekoa. Arratsaldetan eskolaz kanpoko ekintzak egin ditzazketelako eta etxean denbora gehiago egon daitezkeelako. Honek gainera, familia elkarbizitza hobetu egiten du.
3. Lanaldi jarraituaren aldekoa naiz. Lan antolaketan honek arratsaldea nahi dudana erantolatzeko aukera ematen dit: beste jardueramota batzuk egiten uzten dit, edo, adibidez, arratsaldea telebista ikusten ematea. Baina, bestalde, lanaldi jarraitua jasanezina dela esan beharra dut.
4. Dena lanaldi jarraituaren antolakuntza moldearen arabera dago: ikastetxearen baldintzen arabera. Iritzia asko aldatzen da, adibidez, ikastetxeak berak antolatutako eskolaz kanpoko ekintzak baditu eta jantokia badauka.
5. Pedagogi ikuspegitik erabat kontraesankorra da 12-14 urteko adinetan sei edo zazpi ordu-tan pilotzea ordutegia, lantegiko lana balitz bezala. Pertsonaren lan erritmoa ez duela errespetatzen uste dut. Gainera, eskolaren funtzioa ikasleak goiz eta arratsaldean zerbitzatzea da. Beste kontu bat da irakasleei, arrazoi pertsonalak medio, hori interesatzea.
6. Hobe da arratsaldez eskolan egotea, gezurra baita ikasteko asti gehiago dutela. Hobe litzateke irakasleek metodologia aldatuko balute. Eskolaz kanpoko ekintzak berriz, zenbaterik egiten dituzte? Eta gainera, egun ematen zaien baliogehitzailea zalantzan jarri beharko litzateke. Arratsaldeko tarte horretan aitak ala amak kontrolatua balego ikaslea, iritzia aldatu egingo nuke. Baina errealitateak guraso gehienek moztutako lanaldia dutela digu.
7. Guztiz kontra. Adin horretan ez daukate 6-7 ordu gelan egoteko ahalmenik. Lehenengo eta azken orduak ez dira kasik erabilgarriak. Etxera bazkaltzera beranduegi iristen dira eta arratsaldea ezer egin gabe pasatzen zaie.
8. Niri, lanaldi intentsiboak arratsaldean gauzak egiteko aukera ematen dit. Ikastetxeko ekintzak galtzea ere gerta daiteke lankideen nagitasunak eraginda, arratsaldean berriz ikastetxera ez joateko nagitasunagatik alegia.

**Beha ezazu**

Argudio testu batek zenbait **argudio** ditu bere baitan.

Argudioak **aldekoak** ala **kontrakoak** izan daitezke.

4. Tailerra:

NORBERAREN IRITZIA EMAN ETA DEFENDATU

Irakasleentzako orientabide didaktikoak

Ikasleek idazten dituzten iritzi testuetan, maiz gertatzen da ez dutela aukeratutakoaren benetako ondorioetan pentsatzen (batez ere gizarte-harremanetan), ez dutela beren aldeko nahikoa argudio birlatzen edo ez dituztela bertzeen iritziak kontuan hartzen, denei komeni zaien akordio batera iristeko. Honela, idazte prozesuan helburua ahaztu egiten dute (norbait zerbaitez konbentzitzea), ikuspuntua aldatzen dute kontraesanak sortuz, edo bertzela euren ideietan bakarrik zentratzen dira, konbentzitu behar dituztenen iritziak batera kontuan hartu gabe.

Tailer honetako ariketen helburua, ikasleak hartzailearen garrantziaz ohartaraztea da, bai aukeraketa egiterakoan, baita iritzia ematerakoan eta defendatzerakoan ere. Ikasleak distantzia hartzea da xedea. Bertzeen iritzia kontuan hartzeko balio duten adierazpideak lantzeko ariketa bat ere aurkeztu du.

Irakasleak ikasbidaia bati buruzko benetako egoera bat aurkeztuko du (1 eta 2 ariketak); bidaiaren ibilbidea aukeratzeko askatasuna emango die. Ondoren, gogo eta asmo ezberdinak dituen kide baten tokian jarriko direla adieraziko die (eurek hartu beharko dute distantzia, jokuko hiru pertsonaieetatik batekin identifikatzeko).

Hirugarren ariketa egiteko aukeratutako pertsonaiaren *ikuspuntua* defendatu behar dutela gogoraziko die irakasleak.

Laugarren eta bosgarren ariketek negoziatzeko lehen saiakera proposatzen dute (ikusi 8. Tailerra ere): ikasleek antzeztu behar duten pertsonaiak talde osoaren iritzia hartzen du kontuan eta aukera zeharo ezberdina duen lagun bakarra konbentzitzen saiatzen dira.

Azken ariketak bertze aukera bat egitea proposatzen du, bakoitzaren gogoak eta aukerak kontuan hartuz, eta iritzia argi eta garbi azaltzea eskatzen du denentzat onargarria den irtenbide bat aurki dezaten.

Ariketen emaitzak bateratzeko garaian, iritzia emateko adierazpideak erabiltzearen garrantzia azpimarratuko du irakasleak: *nire ustez ...*, *nik uste dut... -(e)la*, etab.

Egoera:

DBHko 1. mailako ikasleek ikasturte amaierako bidaia prestatu nahi dute. Gela bakoitzeko delegatuek, bidaia-agentziara jo ondoren, ibilbide ezberdinak aurkeztu dituzte.

1

El Kiosko Bidaiak

El Kiosko LE
Estafeta kalea, 28
442074 Iruñea
Tlf. (948) 1234567
FAX (948)7654321

Lagun agurgarria:

Hemen daukazue eskatutako aurrekontuak, zuen gustukoak izatea espero dugu. Hala ere, edozein aldaketa egin edo bertze tokiren batera jo nahi bazenute, galdetu, zuen neurriko bidaia presta dezagun.

Halaber, interesatzen zaizuen edozein norakori buruzko xehetasunak azaltzera joateko prest nauzue, IKASLE BIDAIETAN dudan sei urteko esperientzian oinarrituz.

Jaso ezazue agur bero bat,

Sinatua
Maiden Erasun

2

Mallorca**1. EGUNA IRUÑEA-GASTEIZ-PALMA DE MALLORCA**

Bezeroek aukeratutako tokitik Gasteizko aireportura. Hegaldi berezia Palma de Mallorcaraino. Iritsi. Hotelera garraioa. Afarria eta ostatua.

2. EGUNETIK 7.ERA. PALMA DE MALLORCA

Pentsio osoa eta egun libreak. Gune turistiko-kultural interesgarriak bisitatzeko ateraldiak burutzeko aukera egon daiteke: Drach-eko kobazuloak, Valldemosa, El Soller, Alcudiako antzoki errromatarra, Palmako Katedral Gotikoa, bere bainu Arabiarrek, Bellver-eko Gaztelua,... eta noski, jolas instalazioekin gozatzeko: ur parkea eta jolas parkeak, baita ur gardenetako hondartza zoragarriez gozatzeko ere.

8. EGUNA. PALMA DE MALLORCA-GASTEIZ-IRUÑEA.

GOSARIA. Aireportura garraioa-Zuzeneko hegaldi berezia Gasteizera. Iritsi eta autobusez IRUÑEra bidaia. IRITSI. GURE ZERBITZUAK ETA BIDAIA BUKATUKO DIRA.

PREZIOA, BAKOITZEKO: 205 €

SALNEURRIAREN BARNE DAUDE:

- GASTEIZ-PALMA DE MALLORCA-GASTEIZ hegaldiak.
- IRUÑEA-GASTEIZ-IRUÑEA autobusa
- AIREPORTUA-HOTELA-AIREPORTUA bidaia.
- 7 GAU pentsio osoko HOTELEAN***
- Bidaia aseguruua
- 25 LAGUNEKO TOKI BAT DOHAINIK

3

Iparraldea

1. eguna. IRUÑEA-DONIBANE GARAZI

Irteera goizeko 9etan bezeroek aukeratutako tokitik Donibane-Garazi aldera. Geldialdia Orreaga eta Luzaide ezagutzeko. Esterenzubin bazkaldu ondoren Harpeako kobazuloa eta inguruko Trikuharri eta Harrespilen Ibilbidea. Gaua Donibane-Garazin.

2. eguna. DONIBANE GARAZI-UREPELE-BANKA-BAIGORRI.

Gosaldu eta Urepelerantz irteera. Bertan Xalbadoren etxea ikusi, bazkaria norbere kontu, eta Bankara. Beharia mendia igo eta parapente egiteko aukera edo trabesia egiteko aukera. Baigorriara. Arratsalde librea Alde Zaharra, Gaztelua, Erromatar Zubia eta Nafar Estiloko etxeak ezagutzeko aukera. AFARIA ETA OSTATUA.

3. eguna. BAIGORRI-KANBO-LARRUN-SARA.

Gosaldu eta Kanbora bidaia. Bainuetxea ezagutu eta bertako zerbitzuak erabiltzeko aukera: igerileku beroak eta hotzak, sauna, jacuzzia, masajeak, ... Bazkaria pic-nic erra. Autobusez Larrun igotzen duen tren tipia hartzera, paisaia zoragarria ikusi ahal izateko. Sarako Hotelera, AFARIA ETA OSTATUA.

4. eguna. SARA-DONIBANE LOHITZUNE.

Gosaldu eta autobusez Sarako Lezeak ikustera. Bazkaria hotelean eta arratsaldea libre Donibane-Lohitzuneko hondartzaz, kaiatz eta alde zaharraz gozatzeko. AFARIA ETA OSTATUA.

5. eguna. DONIBANE LOHITZUNE-MIARRITZE-BAIONA

Gosaldu eta goiza Miarritzen. Hemen kaiko hondartza lasaia eta hondartza handia, Agramont-darren Gaztelua, Alde Zaharreko Plazatxoak, Kasinoa, ... ikusteko aukera. Pic-nic hondartzan. Ondoren autobusez Baionara.

6. eguna. BAIONA-AZPARNE-DONAPALEU-MAULE-ATHARRATZE

Gosaria, Azparnera autobusez. Bertan pilota-joku erak ikasteko eta jolasteko aukera. Irten Donapaleura, bazkaldu jatetxean. Bisitaldi laburra. Maulerantz jarraitu. Erdi aroko gaztelua ikusi. Gauerako Atharratzera. AFARIA ETA OSTATUA.

7. eguna. ATHARRATZE-SANTA GRAZI-KAKO-ETA-IRUÑEA

Gosaria. Santa Graziko XII. mendeko eliza ikusi eta Kaketara. 3,5 kmtako haitezbakia, laku berde bat inguratuz ibilbide zoragarria. Bukaeran 300 mko arroila eta urjauzia. Bazkaria Iruñerako bidean. Bidaian zehar geldialdiak egingo dira. Iritsi eta gure zerbitzuak bukatuko dira.

Prezioa, bakoitzeko: 137 €

Salneurriaren barne daude:

- LUXUZKO AUTOBUSA bidaia osoan zehar.
- PENTSIO OSOA *** HOTELETAN
- 3 eta 4ko gelak
- Bidaia aseguruak
- Irakasle/laguntzailearentzat erantzunkizun zibileko aseguruak
- 25 laguneko toki bat doan.

4

París-Herbehereak (autobusa/autobusa)

Irteera: IRUÑEA-PARIS

Arratseko azken partean atera PARISERANTZ. GAUA IBILBIDEAN EMANGO DA. Bidaian zehar zenbait geldialdi egingo dira.

1. eguna. PARIS.

PARISERA iritsi. Aukeratutako hotelean ostatua hartu. Egun librea ARGIAREN HIRIA eta bere museo eta monumentuak ezagutzeko.

2. eguna. PARIS.

OSTATUA ETA GOSARIA. Egun librea hiria ezagutzen jarraitzeko.

3. eguna. PARIS.

GOSARIA eta librea PARISEN. Gaez AMSTERDAMerantz bidaia.

4. eguna. AMSTERDAM.

Iritsi eta egun librea hiriaz gozatzeko, bere erdigunean, ubideetan edo DAM Enparantzant paseatuz.

5. eguna. AMSTERDAM.

OSTATUA ETA GOSARIA. Egun librea hiria hobeto ezagutzeko.

6. eguna. AMSTERDAM-LA HAYA-BRUSELA.

GOSARIA eta Holandako hiriburu administratiboa den HAGArantz irteera: Geldialdi laburra. BRUSELArantz jarraitu. Arratsalde librea Europar Batasuneko hiriburuan. OSTATUA.

7. eguna. BRUSELA-IRUÑEA.

GOSARIA. Goiz librea. Adostutako orduan IRUÑErantz irteera. IRITSI. BIDAIA ETA GURE ZERBITZUAK BUKATUKO DIRA.

Prezioa, bakoitzeko: 52 laguneko taldeentzat 215 €

45 laguneko taldeentzat 227 €

Salneurriaren barne daude:

- Luxuzko autobusa
- ARCADE/IBIS kateko hotelean (2 gau) PARISEN
- **** Hotela AMSTERDAMen (2 gau)
- **** Hotela BRUSELAN (2 gau)
- 3/4 ohetako gelak. OSTATUA ETA GOSARIA.
- Bidai-aseguruak
- Zergak eta agentzia gastuak

GEHIGARRIENGATIK GALDE EZAZUE: GIDAK, BISITALDIAK, EURODISNEY...

1. JARDUERA

(Taldeka)

Osa ezazu beheko taula agentzietatik jasotako txostenen informazioa erabiliz.

Helmuga	Ostatua non	Ekintzak	Salneurria	Garraioa

2. JARDUERA

(Banaka)

Aukera ezazu gehien konbentzitu zaituen bidaia eta idatziz azaldu arrazoiak.

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Zure ikuspuntua adierazteko erabili dituzun modalizatzailleak azpimarra itzazu (adibidez: uste dut, iruditzen zait, nire ustean, ez dut uste...).

3. JARDUERA

(Taldeka) Ikuspuntua aukeratu

Ikastetxeko aretoan egingo den batzar orokorrean delegatu bakoitzak bere iritzia defendatuko du. Ordezkarik bakoitzak bere ikuspuntua du eta gasta dezaketen diru kopurua ezberdina da.

Iker
1.A-ko ordezkaria

Nere gelakideok aukera hau aprobetxatu nahi dugu hegazkinez bidaiatzeko, garraiobide hau ez dugulako inork erabili. Gustatuko litzraiguke hondartza duen toki baina baita aukera kulturalak izango dituen ere. Eguzki eta hondartza zaleak gara. Ez dugu autobusez ibilbide luze egin nahi.

Maialen
1.B-ko ordezkaria

Nire gelakoek Euskal-Herria ezagutu nahi dute. Kirol bat baino gehiago egin nahi dute, mendia eta hondartza tartekatuz; ez dadila oso garestia izan eta beren hizkuntzan hitz egiteko aukera izan dezatela

Marixa
1.D-ko ordezkaria

Ekintza kulturalak antolatu ditugunez eta saldu ditugun gauzekin diru kopuru handia lortu dugunez, bidaiaregiteko momentu honetan, atzerrian zehar ibiltzea gustatuko litzraiguke. Hiri eta kultura ezberdinak ezagutzeko. Ez dugu hondartzara edo mendira joan nahi, ez bero handirik pasatu nahi ere. Garesti samarra suertatuko balitz ere berdina zaigu.

Jar zaitezte Iker 1. A-ko ordezkariaren lekuan. Taldeka, zuek aukeratutako bidaiaren alde onak eta bertze bien txarrak gidoi batean idatzi.

Argudioak era argi antola itzazue.

4. JARDUERA

(Banaka)

Taldeka egindako gidoia erreferentziazat harturik, Eskola Kontseiluari idatzi bat bidaliezazu zure aukera azalduz eta bertze biak baztertzeke izan dituzun arrazoiak aipatu. Defenda ezazu zure ikuspuntua.

Zure iritzia emateko, saia zaitetz honelako esamoldeak erabiltzen:

- "Nire ustea da", "nire ustez", "nik neuk".
- "Uste dut", "nahi nuke", "gustatuko litzaidake"
- "Ez dut uste", "ez nuke nahi", "ez litzaidake gustatuko", "ez noski".

[Dotted lines for writing]

6. JARDUERA

Ariketa osagarria

Oraingo honetan Marixaren lekuan ipini zaitez. Kontuan har itzazu gainontzeko delegatuen nahiak eta aukerak, eta idatzi bat egin bertan denendako irtenbiderik hoberena defendatuz. Halaber, zeurea denek onartuko duten irtenbide bakarra dela kontentzitu behar dituzu.

Defenda ezazu aukera berri hau bertzeen ikuspuntua kontutan hartuz. Horretarako, honako esamoldeak erabil ditzakezu:

“Ikerrek pentsatzen du...”

“Nik neuk...”

“Berak uste du...”

“Neuk, ez dut nahi...”

“Batez ere... nahi du”

“Beraz,... aukera dezakegu”

“Maialenek... dio”

“Baina...”

“Ez nuke inolaz ere... nahi”

“Beraz, irtenbiderik onena... litzateke”

“Ikerrek begiratu duen bidaia-agentziaren arabera...”

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. Tailerra:

ARGUDIOAK GARATU (I)

Irakasleen orientabide didaktikoak

Tailer honen helburua, ikasleei arrazoiak ematea da, argudioak oinarritzeko erabiliko direnak (ondorioa oinarrituko duen arrazoiak garatzea). Hurrengo tailerrak bizipen errealetan edo adibideen ekarpenetan oinarritutako aukerak landuko ditu (6. tailerra).

Tailerra “BEHA EZAZU” batekin hasiko da, ikasleak arrazoiak ematearen garrantziaz ohar daitezten. Irakasleak A eta B adibideak aurkeztuko ditu, bakoitzean **arrazoiak** eta **ondorioak** ezberdinduz. Ondorio hau bera oinarritzeko bertze arrazoi batzuk eskatuko dizkio ikasleari. **Arrazoi** eta **ondorio** nozioak definituko ditu eta ikasleak ondokoaz ohartaraziko ditu, A adibidean arrazoiak ondorioaren aurretik doazela, eta B adibidean berriz, ondorioa dela aurretik doana.

Ikasleek 1, 2 eta 3 ariketak egingo dituzte. Erantzunak eztabaidatu eta zuzenduko dituzte taldean. Zuzentzen ari diren bitartean, irakasleak arrazoiaren eta ondorioaren arteko koherentziaren beharra azpimarratuko die.

2. “BEHA EZAZU”k honetaz ohartarazi nahi ditu ikasleak: **beraz** eta **ondorioz** ondorioa emateko antolatzaileak, argudioen aurretik doazenean, ezin direla erabili ondorioa emateko.

Bi ariketa (4 eta 5) prestatu ditugu ikasleak *modalizatzaileen* garrantziaz kontura daitezten. Horretarako, *ziurtasuna* eta *ziurtasun eza* adierazpideak lantzeko “BEHA EZAZU” laukiekin hasiko gara.

Batzuetan, esaten dugunaz ziur egon ohi gara eta *ziurtasun adierazpideekin* indartu behar dugu (“argi dago”, “ez dago zalantzarik”,...). Bertzeetan berriz, ez gaude ematen ditugun ondorioez oso ziur, eta *ziurtasun eza adierazpideak* erabili behar ditugu (“iruditzen zait”, “dirudienez”,...), ez nahasteko. Laugarren ariketan, ikasleek bi modalizatzaile motak ezberdinduko dituzte. Laugarren ariketako 8 esaldiak 5. ariketan errepikatu egiten dira, ziurtasun eta ziurtasun eza adierazpide hauek antzeko esanahia duten bertze adierazpide batzuekin trukatzeko eskatzen zaie ikasleei.

Batzuetan, iritziak oinarritzeko ideiak aurkitzea zaila egiten zaie ikasleei; 5. BEHA EZAZU”k beren iritziak oinarritzen lagunduko dieten galderak eskaintzen ditu. Galdera hauekin ikasleek 6. ariketako argudioak garatzen saiatuko dira. Ahozko joku labur baten bidez, “gurasoendako onargarria” nozioa ulertarazten saiatuko gara. Ikasle batek aitaren papera hartuko du: “Bazkal garaian, platerean dagoen guztia jan behar da”. Bertze bat semea da eta protestan hasiko da: “Ez dago hau jaterik”. Eta aitak erantzun-go dio: “Beno, emazkidazu hau ez jateko bi arrazoi on”.

6. ariketa taldean zuzentzen hastean, ikasleek entzuten dituzten arrazoirik onenak jasoko dituzte (7. ariketa). Garatutako hiru argudioak, ondoren, eraldatu egingo dituzte (8. Ariketa): arrazoiak ondorioekin erlazionatzen dira eta elkarrekin kateatuko dira arrazoi (“-(e)laktz”) eta ondorio (“beraz”) antolatzaileen bitartez. Garrantzitsua da argi adieraztea ikasleei ezin dela antolatzaile bera erabili arrazoiak ondorioaren aurretik (adibidez, ‘izan ere’) badatoz edo ondorioa arrazoiaren aurretik badator (“-(e)laktz”).

Arrazoiak eta ondorioak**Beha ezazu**

Batzuetan, ezin duzue zuen iritziarekin inor konbentzitu ezin duzuelako arrazoitu. Adibidez, honakoa egin behar dela edo bertzea erosi behar dela esaten duzue, baina ez duzue **zergatik** aipatzen. Bertzeak zuekin bat etortzea nahi baduzue, zuen ikuspuntua **arrazoiekin** (argudioekin) defendatu behar duzue. Edonor konbentzitzeko, **ondorioa** justifikatuko dituzten **arrazoiak** garatu behar dituzue.

Arrazoiak: Ondorioa onartzen laguntzen duena

Ondorioa: Edozeri buruz norbaiten ikuspuntua adierazten duen irizpidea.

A adibidea

- DDTak erabiltzeak ozono geruzako zuloa handiagotzen du. UVA izpiak dira azaleko minbiziaren eragile portzentaia batean. Beraz, nire ustez fluorokarbonatuen erabilera mugatzea beharrezkoa da.

B adibidea

- Gure gorputzaren osasuna zaindu behar dugu (ondorioa) horrela geure buruarekin eta bertzeekin gusturago sentituko gara.

1. JARDUERA

Zeure ondorioa osatu honako arrazoiak erabiliz:

- 1. arrazoiketa: Oporretako itzulera bakoitzeko 267 istripu oso larri gertatzen dira**

Ondorioa:

.....

- 2. aurre egiten zaionean, bortizki erantzuten du.**

Honela bada,

..... **behar luke.**

- 3. Ni neu,**

.....

..... **-(r)en aurka nago.**

Aipatu bezala, walk-manekin nindoan egun batean ia auto batek harrapatu ninduen, ez bainuen entzun bidea gurutzatzen hasi nintzanean. Hiltzeko arriskuan izan nintzen.

- 4. Kalea gurutzatzeko zebra biderik erabiliko ez banu, auto batek harrapatzeko arriskua izango nuke.**

Beraz,

.....

5. **Gauz** behar dira.

Gidari batek errepidean argitasunaren arauak betetzen ez baditu, istripu bat sortaraz dezake bertze gidariak itsutu ditzakeelako.

2. JARDUERA

(Banaka)

Lehenengo ariketan ondorioa arrazoien aurretik dituzten esaldien zenbakiak idatzi.

3. JARDUERA

(Talde txikietan)

Irakur itzazu ondorengo argudioak: Idazterakoan, ikasle bat nahasi egin da. Zuzen berridatz itzazue.

1. **Beharrezkoa da beraz, uraren nazioarteko eskubide berriak zehaztea. Ur geza lurrazaleko kopuruaren %3 besterik ez da.**

.....

2. **Bada (oinez) ezkerraldetik ibili behar dugu. Errepidean eskuinaldetik ibiltzen bagara, istripuren bat sortaraz dezakegu/sortu dezakegu.**

.....

Saia zaitetze honako “BEHA EZAZU” laukia osatzen:



Beha ezazu

Beraz eta bada ezin dira ondorioa adierazteko erabili, esaldian ondorioztatutakoa baino lehenago jarri badira.



Beha ezazu

Zure iritziaren ziurtasunik ez baduzu

Ziurtasunik ez baduzu, eta zure solaskidearen zuzenketak espero badituzu, ziurtasun eza adierazten duten adierazpi-deak erabil ditzazkezu

Adibidea: Gure jarrera oldarkorrek aldatuz gero, *uste dut* elkarbizitza atseginagoa izango litzatekeela.

Baliteke, bizi kalitatea hobetzea ozono geruza babestuko bagenu.



Beha ezazu

Zure iritziaz ziur bazaude

Zure iritzia sendoa bada, indartzeko modalizatzaileak erabil ditzakezu.

Adibidea: *Behar-beharrezkoa da* ozono geruza babestea

Argi dago jarrera oldarkorrekin elkarbizitza ezinezkoa dela

4. JARDUERA

(Taldeka)

Ziurtapen adierazpidez indartu diren aipamenak kolore batez azpimarratu.

Bertze kolore batez ziurtasun eza edo probabilitate adierazpideak erabili diren aipamenak.

- 1 Zalantzarik gabe liburutegietan isilik egon behar da.
- 2 Umoreak bizimodua atseginagoa egiten duela uste dut.
- 3 IHESaz ez kutsatzeko, behar beharrezkoa da prebentzio neurri egokiak hartzea.
- 4 Argi dago gizon gehienek etxeko lanak ez dituztela egiten.
- 5 Seguraski “berdeek” parlamentuan euren ordezkaritza gehituko dute
- 6 Zalantzarik gabe, herrialde aberatsen garapena herrialde txiroen kontu egiten da.
- 7 Agian datorren urtean jaitxi egingo da langabetuen kopurua.
- 8 Ezbairik gabe lurra eguzkiaren inguruan biraka dabil.

5. JARDUERA

(Banaka)

Hemen, azpian, laugarren jarduerako esaldiak aurkituko dituzu osatu gabe. Osa itzazu honako adierazpideekin:

Ez dago zalantzarik ...-(e)la	Agian
Seguraski	Ukaezina da ...-(e)la
Dudarik gabe	Nik uste dut...-(e)la
Zer esanik ez	Ziur egon ...-(e)la

Esaldiek 4. ariketako esanahi berbera eduki behar dute:

- 1-..... liburutegietan isilik egon behar litzateke.
- 2-..... umoreak bizimodua atseginagoa egiten duela.
- 3-..... IHESaz ez kutsatzeko prebentzio neurri zuzenak hartu behar dira.
- 4-..... gizon gehienek etxekolanak egin gabe jarraitzen dutela.
- 5-..... “berdeek” parlamentuan ordezkari gehiago ateratzen jarraitzen dute.
- 6-..... nazio aberatsen garapena nazio txiroen kontu egiten dela.
- 7-..... datorren urtean langabetu gutxiago egongo da
- 8-..... lurra eguzkiaren inguruan biraka dabilela.



Beha ezazu

Ondorioa nola arrazoitu?

Konklusio bat arrazoitzeko, arrazoibideak aurkitu behar dira eta hori egitea ez da erraza.

Zeure buruari honelako galderak egiten badizkiozu, argudioak aisago aurkituko dituzu:
Zerk bultzatu nau hau esatera?

Zergatik iritzi hau?

Iritzi hau zein ekintzek indartzen dute?

Nola arrazoitu edo defenda dezaket iritzi hau?

6. JARDUERA

(Banaka)

Idatz itzazu ondorio hauetara iristeko onargarriak izango diren arrazoiak:

GURASOENDAKO ONARGARRIAK:

Platerean ateratako guztia jan behar da.

1. arrazoa:
2. arrazoa

GELAKIDEENDAKO ONARGARRIAK:

Bakarrik 20 minutuko 2 jolastordurekin ez nago batere ados

1. arrazoa:
2. arrazoa

ZERGADUNENDAKO ONARGARRIAK:

Jubilatuek ez lukete zergarik ordaindu behar.

1. arrazoa:
2. arrazoa

7. JARDUERA

(Iritziak bateratzen)

Gelan 6. ariketan atera diren arrazoirik pisutsuenetatik atal bakoitzerako bana aukeratu:

Gurasoendako:

Gelakideendako:

Zergadunendako:

8. JARDUERA

(Banaka)

Jarraian dagoen BEHA EZAZU laukian azaltzen diren adierazpideen laguntzarekin lot itzazu goiko ariketan sailkatutako arrazoiak eta ondorioak:



Beha ezazu

Arrazoien kohesioa lortzeko:

Alde batetik,Bertzetik

...-(e)laketz, ...-(e)lako, bait-...

Eman dezagun-(e)la

Era berean, suposatuz ...-(e)la

Konklusioak sartzeko:

Honela...

Horren ondorioz...

Horregatik...

Hori dela eta...

Beraz, ...

Adibidea:

Alde batetik, ozono geruza deuseztatzen ari denez eta bertzetik, gero eta azaleko minbizi gehiago dagoenez gero, neurriak hartu beharko liratekela uste dut.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

6. Tailerra: ARGUDIOAK GARATU (II)

Irakasleen orientabide didaktikoak

Seigarren tailerrak aurrekoa osatzen du. Argudio bat oinarritu beharraren ikaskuntza finkatzen saiatzen da (ondorioa oinarrituko duen arrazonamenduak garatzea), baina argudioak garatzeko bertze aukera batzuk ematen ditu batez ere:

- a) Iritzia indartzeko ikasleak bizi izandako bizipen bat erantsiz (testigantza pertsonala)
- b) Defendatzen dena erakusteko adibideak emanez.

Seigarren tailerra hartzailearen arabeko argudioak aukeratzeko ariketa batekin hasten da. Nahiz eta proiektu bera defendatu (kale batean zirkulazioa debekatzea, 1. aukeran bezala), ezin da argudio berbera erabili, agintariak, bizilagunak, edo auto gidariak konbentzitzeko.

Ikasleak ikusteko argudioa hartzaileari nola egokitu behar zaion, lehenengo ariketako argudio bakoitza norentzat egina dagoen erabaki beharko du.


Bigarren ariketako “egoera” gazteen aldizkari batetik hartu da. Bertan eztabaida bat agertzen da aldiro (“etxeko animalien alde edo aurka”, “etxeko lanen alde edo aurka”, etab.). Irakasleak prentsako ‘Zuzendariari Gutunak’ atalaren garrantzia eta helburuaz hitz egingo du eta gazteen aldizkariak proposatutako eztabaiden ezaugarri zehatzak gogoraraziko ditu. Ondoren sekretuei buruz Koldok proposatzen duen galdera irakurriko du eta eztabaidan parte hartzeko eskatuko die ikasleei, Joni idatzitako gutuna eginez. Ikasleek gutunak idatzi dituztenean, irakasleak azpimarratuko die batzuetan argudioa garatzeko erabilgarriagoa dela testigantza pertsonala erabiltzea arrazoiketa baino.

Testigantza pertsonala eta adibideak

1. JARDUERA

(Banaka)

Irakurri ondorengo egoera eta galderari erantzun.



Zein arrazoik konbentzituko du hartzaile bakoitza?

1. Arrazoia

Kale Berrian zirkulazioa debekatu behar da eta oinezkoendako kale bihurtu behar da. Alde batetik, zuen seme-alabak gusturago jolas lezakete kalean eta bertzetik, ez zenukete zarata eta kutsadurarik jasango.

Hartzailea:

2. Arrazoia

Kale Berritik gertu eta paraleloan dagoen kaleak, zirkulazio askoz ere gutxiago duenez eta zabalagoa denez gero, arrisku gutxiago sortzen du eta zirkulazioa azkarragoa izango litzateke.

Hartzailea:

3. Arrazoia

Proiektu berri honek ez duenez seinaleztapen beharrik diru asko aurrezten da, oinezko gune gehiago dago eta denok hain maite dugun kalean bizi kalitatearen ideia indartzen dugu. Beraz, ...

Hartzailea:

1. JARDUERA

(Taldeka)

Ondorengo esaldi hauek osa itzazue, arrazoiketa eta ondorioen arteko kohesioa ziurtatuko duten adierazpideak erabiliz (lehenago ariketan erabilitakorik ez idatzi).

1. Estafeta kalean zirkulazioa debekatu behar da eta oinezkoen kale bihurtu behar da.
..... zuen hurrek lasai jolastuko dute kalean
..... zarata eta kutsadura mailak jeitsiko dira.
2. Kale berri paraleloa, ez hain erabilia, zabalagoa eta arrisku gutxiagokoa du
..... kale berri honetan zirkulazioa azkarragoa izanik Estafeta kalean zirkulazioa debekatu eta oinezkoen kale utzi behar da.
3. Proiektuak ez du senaleztapenik eskatzen, honek dirua aurrezteko dakar.
oinezkoen guneak gehituz doaz eta bizi kalitatearen ideia indartzen da kale honetan.
..... Estafeta kalean zirkulazio debekatu eta oinezkoentzat utzi behar da.



Beha ezazu

Testigantza pertsonal batekin argudioa indar dezakezu.

Egoera:

“Jon nire lagunik minena da. Neure pentsamendu guztiak aipatu behar dizkiot edo sekreturen bat gorde dezaket”. Galdera hau 12 urteko mutiko batek gazteendako aldizkari batean azaldu zuen. Bertan, iradokizun horren inguruan eztabaida sortu da.

Aldizkariak hiru erantzun mota argitaratu zituen:

- Inongo zalantzarik gabe "bai"

Adibidez: “Ez zaitut ezagutzen, baina berataz fida zaitzke-la uste baduzu, egin ezazu” (Edurne).

- “Bai”, baldintzatua

Adibidez: “Benetako laguna baduzu bai. Honek ez dielako bertzei zure sekreturik kontatuko. Baina berarekin ez baduzu benetako adiskidetasunik EZ! Batzuetan hasarre zaitzkelako eta orduan zure sekretuak ingurukoei konta diezazkielako” (Karmele).

- “Ez” biribila

Adibidez: Ez. Ez zenizkioke zure sekretuak inori kondatu behar, horrez gero ez liratekelako sekretuak izango. Sekretua isilekoa da eta ez zaio inori esan behar (Saioa).

3. JARDUERA

(Banaka)

Defenda ezazu zure jarrera honako testu hauetako bat osatuz.

Indartu zure ikuspuntua testigantza pertsonal batekin.

Nik neuk uste dut

.....

.....-(e)la.

Aspalditik galdera bera egin diot neure buruari. Pena handia sentitu dut eta pentsatu dut: “norbaitekin hitz egiteak zama arintzen du”. Horregatik

.....

.....



Beha ezazu

Argudio bat indartzeko adibide batez balia zaitzke. Adibidea tartekatze honelako antolatzaileak erabil ditzakezu: “esaterako”, “asmo honekin”, “adibide bat emango dizut”, “eman dezagun”, “alegia”, “esate baterako”, “dema-gun”, e.a.

7. Tailerra:

IRITZIAK ZALANTZAN JARRI

Irakasleen orientabide didaktikoak

Taldekako eztabaida batekin hasiko da tailer hau, nahikoa arrazoibide ez duen *iritzi bat zalantzan jartzeak* zer esan nahi duen ulertaraz diezaiegun. Xede honekin, irakasleak lau hitz multzo idatziko ditu lehenik, taldeka, zerikusirik ez duen hitza aurki dezaten:

1. Iritzia, ustea (egia), aburua, neurrera.
2. Galdetu, eztabaidatu, inposatu, konbentzitu, limurtu.
3. Arrazoiak eman, zalantzan jarri, aginduak eman, negoziatu.
4. Aurkari, hizlari, jarraitzaile.

Eztabaidak egia eta iritziaren arteko ezberdintasunak ezarri beharko lituzte; inposatu eta konbentzitzen saiatzearen artekoa; zalantzan jarri eta aginduak ematearen artekoa; aurkariaren eta jarraitzailearen artekoa. Eztabaidak argudiatzeari buruzko hiztegia aberastuko du gainera.

Eztabaidaren sintesian, ikasleek ulertu behar lukete iritzi bat ez dela beti zuzena, eta oinarritzen duen arrazoibidea zalantzan jartzeko eskubidea dugula.

Tailerren helburua zehazturik, poliziak, esaten dizkietenak zalantzan jartzen dituela esango du irakasleak. Orduan, Albreteko markesaren lepokoaren lapurketari buruzko egoera irakurriko die eta simulazio jokoak dela gogoraraziko die.

Ariketak egin aurretik, ikasleei zera esango diegu: lepokoa ez dutela lapurtu uste duen familiako baten papera hartuko dutela, eta markesa lasaitzen saiatuko dela bera.

Ahoz aurkeztuko du ariketa bakoitza, erabiliko duen adierazpide bakoitzaren esanahia idatzi eta azalduz, batez ere “*Poliziaren bertsioa sinesteko, zera falta litzateke...*”. Lehenengo ariketan lapurreta sinesteko “*frogarik ez dagoela*” esango du. Bigarren ariketan “*nahastuta egon*” litekeela iradokitzen da.

Bat, bi eta hiru jarduerak laugarrenean proposatzen den testua idaztea errazten dute.

Kontrajarri eta eragozpenak adierazi**Egoera:**

Orain aste batzuk, Albreteko markesaren etxetik esmeraldazko lepokoa desagertu zen. Amonarengandik jasotako herentzia da eta markesak asko estimatzen du bai bitxiak berak duen balioarengatik, baita balio historiko eta sentimentalagatik ere.

Bere arte galeriako margo erakusketa baten zabalitze festan erabili zuen azken aldiz.

Ettxera lepokoarekin iritsi zela gogoratzen da, baina ez daki diru kutxan sartu ote zuen. Behin bitxiaren desagerketa salatuta, polizia balizko lapurreta ikertzen dabil. Hasieran susmagarria lorazaina da, lepokoa desagertu zen gauean etxean zegoen zerbitzari bakarra baitzen.

**2. JARDUERA****(Banaka)**

Pentsa ezazu familiaren laguna zarela eta Albreteko markesari idazten diozula, esanez lepokoaren lapurretan sinesten ez duzula frogarik ez dagoelako. Gertakizunek polizien susmoak ez dituztela frogatzen adieraz iezaiozu.

Erabil itzazu horretarako azpiko adierazpideak adibidearen antzera:

– Lapurreta izango balitz balio handiko bertze gauzaren batzuk ere eramango zituzten zure etxetik.

.....
 *soilik izan liteke.*

Zalantzan nago

Gerta zitekeen

2. JARDUERA

(Banaka)

Polizien iritzia zalantzan ipin ezazu. Lorazaina, lepokoa desagertu zeneko gauean etxean egoteak, ez du frogatzen berak lapurtu zuenik. Lepokoa, agian, galdu egin zen.

Har ezazu testu hau adibidetzat:

– Polizien esanetan lepokoa lorazainak lapurtu zuen. Baina desagerketaren gauean etxean zegoen zerbitzari bakarra izatea ezin da lapurretaren frogatzat hartu.

- Polizien iritzia onartzeko*
- Ez ezazula sinestu*
- Ez nago ziur* - (e)la.

3. JARDUERA

(Talde txikietan)

Gogora ezazu Albreteko markesaren laguna zarela. Honako adibidea eredutzat hartu eta osatu esaldia.

Adibidea: Hutsegite bat izan behar du, lorazainak etxeko zerbitzuan 35 urte daramatzalako eta gainera konfiantza osoko laguna delako.

- Ez dut uste* - (e)nik bistakoa baita.
- Zaila da sinestea*

8. Tailerra:

NEGOZIATU ETA AMORE EMAN

Irakasleendako orientabide didaktikoak


Zortzigarren tailer honetako jarduerak negoziatu eta amore eman du izenburu. Ikasleei zailago egi-ten zaie jarrera komun bat negoziatzea, beraien jarrera justifikatuko duen arrazoiak aurkitzea baino. Jarrera amankomuna negoziatzeko beharrezkoak dira:

- Norberaren jarreratik urrundu.
- Aurreikusi eta ulertu aurkariaren jarrera.
- Denendako egokia izango den jarrera aurkitu.

Tailerraren helburua negoziaketarako sensibilizazioa lantzea da. Balizko egoera batekin hasten da eta aholku batzuk aurkezten ditu irtenbidea negoziatzeko.

Maila linguistikoan *kortesi*azko eta *kontzesiorako* formulak erabiltzea proposatzen zaie ikasleei.

Irakaslearen lana, gutuna idazteko aholku sail bat eman eta justifikatzea da, gero elkarrizketa anto-latzeko. Ikasle bakoitzak gelakideei irakurriko die bere testua, bertzeek entzungo dute, iradokizunak emango dizkiote eta ideiarik interesgarrienak azpimarratuko dituzte.



1. JARDUERA

(Banaka)

Neskaren lagun taldeko kidea zara. Gutun baten bidez, bere gurasoak konbentzitu behar dituzu Aitorrekin irteten utz diezaioten.

Idatzi aurretik, talde txikian, lagun taldea bazinate bezala gurasoei pentsarazi eta konbentzitzeko erabiliko dituzuen argudioak eztabaidatu.

Gutuna idazteko aholkuak:

Hartzailea kontuan izanik, hizkuntza egokia erabil ezazu gurasoen pentsaera aldarazteko eta zuen adineko neska-mutil guztientzat ohiko egoera dela kontura daitezen.

– Zuek ados bazeundete, gustatuko litzaiguke.

– Onartuko bazenute

– ulertzea gustatuko litzaiguke

– Zera gogorarazi nahiko genizueke

Egoera onartu garrantzi gutxiago emanaz:

– Badakigu -(e)la

– Era berean, aitortzen dugu-(e)la

– Zuekin ados gaude -(e)la, baina...

Barkamena eskatzeko

- *Barkamena eskatzen dizuegu*
- *Utz iezaguzue zera azaltzen*

Zuen gogo sendoa azaltzeko:

- *Ziurtatzen dizuegu ...*
- *Konturatu behar duzue...*
- *Azter ezazue zeuek egoera...*

Aldeko argudioak kontutan izan:

- *Gure eskaeraren arrazoiak ugariak dira...*
- *Utz iezaguzue zera esaten...*

Errespetuz kontra egiteko:

- *Beren lekuan egonda, ulertuko zenukete*
- *Ezin duzue zuen pentsakera horretan itxi* *baita.*

2. JARDUERA

(Taldeka)

Gutunean ortografia zuzendu eta gero, irakurri zure lagunei. Ondoren, aipatutako zuzenketa eta aldaketak egingo dituzu. Zeuk ere aipatu zure lagunenei egin dizkiezun zuzenketak.

4. FASEA

HASIERAKO EKOIZPENA BERRIKUSTEA ETA BERRIDAZTEA

4. fase honetan zehar ikaslearentzat garrantzitsuena, ikasitako guztia kontuan hartuz 2. fasean (hasierako ekoizpenean) idatzi zuen testua hartu, berrikusi eta aldatzea da. Azkenik, txukun idaztea, hau da, azken idazketa orri garbi batean kopiatzea.

3. fasean zehar egindako oharrez (“beha ezazu”) osatutako “berrikusketa gida” egitea gomendatzen da. Honako atalak izango ditu:

- a) Argudio egoeren ezaugarriak.
- b) Argudioa garatzeko aukerak.
- c) Bertzeen iritziak eta oharrak kontuan hartzearen garrantzia.
- d) Iritzi bat zalantzan jartzeko estrategiak.
- e) Bertzeak konbentzitzeko, negoziatzeko eta kontzesioak egiteko interesa.

Berrikusketa gida egiten dugunean, ikaskuntzan zehar burututako “BEHA EZAZU” guztien eztaba-ida egingo dugu gelan. Irakasleak arbelean idatziko ditu atal guztiak (egoerak, argudioak garatu, aurkariengan pentsatu, zalantzan jarri, negoziatu, eta kontzesioak egin) eta sei tailerrak berrikustea proposatuko die hasierako ekoizpena hobetzeko erabil daitezkeen elementuak aukeratu edo testu berri bat idazteko.

Irakaslea, ikasleak lortu duten argudio testuaren ezagutzaz ohartarazten saiatuko da, lehenengo ekoizpenean alde batera utzi baitzuen. Arbelean taldeko eztabaida gida dezaketen ideiak idatziko ditu baina ikasleei eskatuko die, halaber, erabilgarri izan daitekeen informazioa euren hitzekin koadernoan idaztea. Honela, ikasitako puntu garrantzitsuenak gogoraraziko dizkien gida sortuko dute. Berrikusketa zer izan daitekeen jakiteko adibide bat dago.

Lehenengo ekoizpena, berrikusten hasi baino lehen, irakasleak ideia hau azpimarratuko du: testua beti hobetu daiteke (idazle onek ere beti hartzen dute idatzitakoa eta aldatzen dute) eta beren zailtasunez ohartaraziko ditu.

Ohar garrantzitsua:

Azken ekoizpena bere horretan onartzea aholkatzen dugu, nahiz eta ongi egon ez. Hobe da testua berriz ez zuzentzea.

Berrikusketak gida

8 tailerretako BEHAKETA GIDAK irakurri berriz. Idatz itzazu zure lehenengo ekoizpena, "Charaguako arazoak", hobetzen edo bertze argudio testu berri bat eraikitzen lagunduko dizuten oharrak.

1. Argudio egoeraren inguruan:

.....

.....

.....

.....

2. Argudio garapeneren inguruan:

.....

.....

.....

.....

3. Aurkariaren inguruan:

.....

.....

.....

.....

4. Aurkariaren iritzia zalantzan jartzeko:

.....

.....

.....

.....

5. Negoziatzeko eta kontzesioak egiteko:

.....

.....

.....

.....

Berrikusketak

“Charaguako” zure proiektua defendatzen duzuneko argudio testua berrirakurri. Berrikusketak gida erabili, zure testua hobetzeko oharrak idatziz baita bertze zinegotziak zure proiektuaz konbentzitzeko.

Zure lehen ekoizpena hobetzeko ideiak / oharrak

Zirriborroa: “Charaguako arazoak”

Zure testua hobetzeko, honakoa egin dezakezu:

- Hitzak edo testu zatiak aldatu edo berriak erantsi.
- Hitzak edo testu zatiak tokiz aldatu.
- Hitzak edo testu zatiak ezabatu.

(Hemen itsatsi ikaslearen ekoizpena)

Charaguako udala

Zinegotzigoaren txostena:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

BANAKAKO EKOIZPEN BERRIA

Ekoizpen berria egiteko orientabideak

Banakako ekoizpenaren helburua ikaslea behatzea eta ebaluatzea da, sekuentzia didaktiko honetan zehar landutako edukiak nola erabili dituen ikusteko.

Horretarako, **egoera berri bat** planteatuko diogu ikasleari (“Charaguako arazoak” ekoizpenean landutakoaz ezberdina) proposatzen den gaiaren **aldeko / aurkako** jarrera idatziz defendatu beharko duelarik ikasleak.

Ikasleei egoera berria planteatzeko unean, egokia litzateke, berteak bertze, irizpide hauek kontuan hartzea:

- Ideologia edo emozio mailan inplikazio handiegia eskatzen duten gaiak ez planteatzea (abortoa, heriotz zigorra, herri mailako gertakizun oso “arazotsuak”, etab.). Gomendagarria litzateke ikasleei egunerokoak edo gertukoak gertatuko zaizkien gaiak planteatzea, arazoa urrundik ikustea ahalbidetuko dutenak, gure eskuetatik ihes egin eta helburutik bazter gaitzaketen polemikak ekiditeko.
- Planteatzen diren egoeretan arazo zehatzak testuinguru egokian azaldu beharko dute, ikasleak irudika ditzan eta beraz, planteatutako egoerarekin erlazionatutako argudioak ongi aukera ditzan.
- Ikasleen adina kontutan hartzea eta euren interesetara egokitutako arazoa planteatzea.
- Egoera berriak planteatzeko honakoak iradokitzen ditugu:
 - Gelan bertan, sekuentzia didaktikoko testuen bidez, edo ikastetxean sortzen diren egoera errealak ongi aprobetxatzea.
 - Gelan bat-batean sortzen diren egoerak aprobetxatzea, didaktikoki erabilgarriak badira.
 - Ikasleek proposatutako gaiak.
 - Egoera berriak diseinatu eta irudikatzea.


Hala ere, ondoren dator lagun zaitzaketen zenbait egoera.

Ikaslearen inguruko egoera baten eredia*

Halako egun batez, zure gela dagoen korridorea, komunikatibitateko urrez eta paperez beterik azaltzen da. Irakasleek, oso haserre, ez dituzte erantzuleak aurkitzen. Nor edo nortzuk izan dira barrabaskeria egin dutenak? Badirudi ura eta paperak komunikatibitateko bakarrik atera direla. Azkenean, irakasleek gela osoa zigortzen dute: gelako neska-mutil guztien artean komuna eta korridorea garbituko dituzte.

- Idatz itzazu irakasleek zigor hau jartzeko dauzkaten arrazoi batzuk.
- Zure ikastetxeko Eskola Kontseiluari idatz iezaiozu zigorraren aurkako arrazoiak argudiatuz.

* Beleko, Euskara 6, Elkar GIE-tik hartutako adibidea.



Bertze hainbat egoera

- Pentsa ezazu zure ikastetxeko koordinatzailea izango zarela eta jolastokien banaketa antolatzekeo kanpaina egin behar duzula. Kanpainan erabiliko dituzun arrazoiekin zirriborroa egin ezazu.
- Etxean zakur bat nahi duzu, baina zure amak ez du inola ere nahi. Zer nolako eztabaida sortuko litzateke? Pentsa ezazu zure amari gutun bat prestatu nahi diozula. Bertan hiru arrazoi erabiliko dituzu bera konbentzitzeko eta zakurra etxera ekartzeko. Zure amak ere izango ditu bere arrazoiak. Pentsa ezazu alde zuretik zeintzuk izan daitezkeen. Zein arrazoi erabiliko zenituzke berei aurre egiteko?
- Pentsa ezazu zure ikastetxean eztabaida bat dagoela telebistan publizitatea debekatzeko. Ekintza honek bi sekuentzia izango ditu eta irakasleak kontuz ibili behar du:
 - a) Zein izango litzateke zure jarrera eta zein argudioekin defendatuko zenuke?
 - b) Publizitatea kenduko balitz, familia guztiek hileroko 48 € ordaindu beharko lukete, publizitateak dirurik ez ematean galerarik ez gertatzeko.
- Demagun zure herriaren erdialdean zirkulazioa debekatu dela. Zein argudio emango zenituzke udalaren erabaki hau defendatzeko edo erasotzeko.

Egoerak sortzeko zenbait ideia

- Denden ordutegia
- Soinketa klasearen ondoren dutxatu beharra
- Zenbait erret abelbide hirietan zehar pasatzea
- Toki publikoetan erretzeko debekua
- Zoologikorik egon behar luke? Idatz ezazu egunkari batera gutuna zure aldeko edo aurkako ikuspuntua defendatuz

Ez ahaztu batez ere proposamen hauek testuinguru egokian jartzea, ikasleari egoera irudikatzen eta argudioak egoki aukeratzen laguntzeko.

BIBLIOGRAFIA

HAINBAT EGILE: “Enseñar a argumentar”, *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 26 zkia, Madril, 1995

DOLZ, Joaquim: “La argumentación”, *Cuadernos de Pedagogía* 216 zkia, 1993, 68-70 oo.

—: “La interacción de las actividades orales y escritas y la enseñanza de la argumentación”, *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 23 zkia, 1993, 17-27 oo.

CROS, A.; VILÁ, M.: “La argumentación oral: una propuesta para la enseñanza secundaria”, *Textos* 3 zkia, 1995, 52-59.

I ERANSKINA

ARGUDIO TESTUAREN ANTOLATZAILEAK. IRAKASLEARENDAKO MATERIALA

Hemen duzu sekuentzia didaktiko hau garatzen lagunduko dizun taula.

Oharrak:

- Ez da ikasleek buruz ikasteko zerrenda bat.
- Helburua ez da agertzen diren antolatzaile guztiak banaka erabiltzea, irakasleendako erreferente erabilgarria izatea baizik.
- Kontua ez da esaldiak edo testuak markatzaile jakin batzuk erabiliz idaztea, baizik eta sekuentzia didaktiko hau ekoizteko egokiak, baliagarriak eta erabilgarriak direnak erabiltzea.

Kontrastea

(Ideiak eta ekintzak kontrajartzeko)

Dena delarik ere, ...
Horren aurka...
Esanak esan, ...
Edozein modutan ere, ...
Hori horrela izanik ere, ...
Zernahi gisaz (ere), ...
Edonola ere, ...
Aurrekoaren kontrara, ...
Kontuan hartu baina, ...
Datorrena datorrela, ...
Hori gora-behera, ...
Kontuan izan bertzetik, ...
Nolanahi ere, ...

Kontzesioa

(Zerbait onartzeko)

Zalantzarik gabe...
Ziur asko...
Noski...
Egia da...
Onartzen dut...
Konturatzen naiz...
Jakina...

Kausa

– (e)lako/-(e)lakit
– (e)nez (gero)
Bait-
Kontutan hartuta...
– t(z)eagatik/-t(z)earren
– (r)i esker
... dela medio/kausabide
Bistakoa denez...
Honengatik, horregatik, hargatik

Ondorioa

Beraz...
Honela/horrela/hala...
Esanak esan...
Kontutan izanik...
Honen/horren ondorioz...
Honen/horren kausaz (karia)...
Bada...

Baldintza

Baldin eta...
Beti ere...

Kontrajartzeko

Nahiz eta...
...arren...
...ba-... ere...
Baina...

Norberaren inplikazioa

Nire iritziz...
Nire ustez...
Uste dut ...-(e)la
Nire ustetan...
Neure baita...
Askok uste dugu...
Neure ikuspuntutik...

Zalantza

Badirudi...
Beharbada...
Agian...
Apika...
Ez dut argi ikusten...
Ez nuke esango...
Izan liteke...
Zaila da sinestea...

Ñabardurak egiteko

Hala eta guztiz ere...
...(aditza)-ta/da ere
Baina...

Gaia lotzeko

lido beretik...
...(r)i dagokionez

Konklusioa/bukaera emateko

Bukatzeko (amaitzeko)
Amai dezaguz esanez...
Azkenik...
Honela/horrela/hala...

Amore emateko

Egia da, baina..
Litekena da, baina...
Ados, baina...
Egia bada ere,...
Bat nator, baina...

Erabateko baietza eta ezetza

Ziur...
Bistakoa da...
Dudarik gabe...
Ezinezkoa da...
Jakin badakigu...
Ez dago zalantzarik...
Gezurra galanta...
Eztabaida ezina da...
Hori diona oker dago...
Behar-beharrezkoa da...

Negoziatu eta amore emateko

Adoz bazeunde, gustatuko litzaiguke...
Hala nahi bazenute...
Gogorarazi nahi genizueke...
Zera uler dezazun gustatuko litzaidake...
Utz iezadazu azaltzen...
Zera ziurtatzen dizugu...
Egoeraz jabe zaitetz...
Zu ni bazina, ulertuko zenuke...
Ezin duzu zeure horretan jarraitu...

II ERANSKINA ERANTZUNAK

Aurretiko oharra:

1. Ez daude hemen ariketa guztien erantzunak, baizik eta irakasleendako lagungarri izan daitezkenak soilik.
2. Erantzun batzuk zehatzak dira eta aukera bakarra onartzen dute. Bertze batzuk, aldiz, hemen dagoen erantzunaz gain bertze batzuk ere izan ditzakete.

1 TAILERRA

1. JARDUERA

Galdera	Erantzuna	Galdera	Erantzuna
1	3	6	2
2	1	7	1
3	2	8	2
4	2	9	1
5	3	10	3

2. JARDUERA

- Otsoa Azalpen testua
Otsoak babestu behar al dira? Argudio testua
Otso baten istorioa Narrazio testua

3. JARDUERA

- Testuari izena ematen dion eta eztabaida pizten duen galdera kopia ezazu.
Otsoak babestu behar al dira?
- Idazleak berak galdera horri erantzuna ematen dion idatz-zatia kopia ezazu.
Geldi dezagun otsoaren akabatze basati hau. Behar-beharrezkoa da neurriak hartzea basapizti maitagarri hau babesteko.
- Testu egileak salatu nahi duen egoera azaltzen deneko esaldia kopia ezazu
Otsoak hainbesteraino meatxatu direnez, denbora gutxi barru desager daitezke

4. JARDUERA

Aldeko argudioak

- Otsoak... denbora gutxi barru desager daitezke.
- Otsoak oso animalia beharrezkoak dira naturan, ahuldutako edo gaixoturiko animaliak erasotzen baitituzte.
- Otsoak desagerturiko zenbait eskualdetan, nahiz basahuntz kopurua neurrigabe hazi dela eta, oreka naturala hautsi dela konturatu dira.

Aurkako argudioak

- Otsoak gizakiak ehizatzen dituen animalia berak ehizatzen ditu eta artaldeak mehatxatzen ditu.
- Gerra garaian otsoek gizaki ahulduak irentsi izan dituzte.
- Otsoak amorruren gaitza kutsatu dezake.

5. JARDUERA

- 5 eta 8
- Bi testuetan iritziak ematen dira. Idazleak zerbaiten alde daude eta arrazoiak ematen dituzte. Helburua konbentzitzea da.

6. JARDUERA

Testua	Mota
4	Narrazioa
5	Argudioa
6	Narrazioa
7	Narrazioa
8	Argudioa

2 TAILERRA**1. JARDUERA****1. egoera:**

- Nora bidal dezake idatzia?
Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politika sailera.
CAMPSA enpresari.
Egunkarietara.

- Nortzuk konbentzitu nahi ditu?
Gasolindegietako bezero eta langileak

2. egoera

- Norengana joko du emakume honek arazoa argitzeko?
Nekazaritza eta Industria Sailera
Agintariengana
Udaleko gizarte zerbitzuetara
Egunkarietara

2. JARDUERA

- 10 testua: 1. egoerari dagokio
- 11 testua: 2. egoerari dagokio

3. JARDUERA

10. testua. Arazoa:

Euskara ez dagoela normalizatuta komertzioan.

11. testua. Hartzaileak:

Mendia gustoko duten irakurleak eta artzainak

4. JARDUERA

Testuaren idazlea:	<i>Autopista Vasco Aragonesa-ko ordezkaria</i>
Arazoa:	<i>5. irteerako seinaleztapena</i>
Helburua:	<i>Bezeroa konbentzitu, seinaleztapena egokia dela argudiatuz</i>
Hartzailea:	<i>Bezero bat</i>
Agertokia:	<i>Etxera gutuna</i>

3 TAILERRA

1. JARDUERA

	<i>Alde</i>	<i>Ez alde</i>	<i>Ez alde ez aurka</i>
Gurasoak	1,2	6	4
Irakasleak		5,7	
Ikasleak	3		8

5 TAILERRA

1. JARDUERA

1. Oporretako itzulera bakoitzeko 267 istripu oso larri gertatzen dira

Konklusioa: *Bidezaintzak emandako aholkuak hitzez-hitz bete behar dira.*

2. Aurre egiten zaionean, bortizki erantzuten du.

Honela bada, *bere burua neurtzen ikasi behar luke.*

3. Ni neu, *kalean nabilela walkmanak erabiltzearen aurka nago.*

Aipatu bezala, walkmanekin nindoan egun batean ia auto batek harrapatu ninduen, ez bainuen entzun bidea gurutzatzen hasi nintzenean. Hiltzeko arriskutan izan nintzen.

4. Kalea gurutzatzeko zebrabiderik erabiliko ez banu, auto batek harrapatzeko arriskua izango nuke.

Beraz, kalea gurutzatzen dudan bakoitzean, zebrabidea erabiltzen dut.

5. *Gauetz autoko argia erabiltzeko arauak errespetatu behar dira*

Gidari batek errepidean argiak erabiltzeari buruzko arauak betetzen ez baditu, istripu bat sortaraz dezake bertze gidariak itsutu ditzakeelako.

2. JARDUERA

3 eta 5

5. JARDUERA

1. **Dударик gabe** liburutegietan isilik egon behar litzateke.

2. **Ukaezina da** umoreak bizimodua atseginagoa egiten duela.

3. **Zer esanik ez** IHESaz ez kutsatzeko prebentzio neurri zuzenak hartu behar dira.

4. **Nik uste dut** gizon gehienek etxekolanak egin gabe jarraitzen dutela.

5. **Agian** “berdeak” parlamentuan ordezkari gehiago ateratzen jarraituko dute.

6. **Ziur egon** nazio aberatsen garapena nazio txiroen kontu egiten dela.

7. **Seguraski** datorren urtean langabetu gutxiago egongo da

8. **Ez dago zalantzarik** lurra eguzkiaren inguruan biraka dabilela.

6 TAILERRA

1. JARDUERA

1. arrazoia. Hartzailea: *Estafeta kaleko bizilagunak*
2. arrazoia. Hartzailea: *Auto gidariak*
3. arrazoia. Hartzailea: *Agintariak*

2. JARDUERA

1. Kale Berrian zirkulazioa debekatu eta oinezkoen kale bihurtu behar da. **Honela**, zuen hurrek lasai jolastuko dute kalean. **Gainera**, zarata eta kutsadura mailak jaitsiko dira.
2. Kale berri paraleloa, ez hain erabilia, zabalagoa eta arrisku gutxiagokoa **dela kausa, eta horrez gain** kale berri honetan zirkulazioa azkarragoa izanik, Kale Berrian zirkulazioa debekatu behar eta oinezkoendako utzi behar da.
3. Proiektuak ez du senaleztapenik eskatzen, honek dirua aurreztea dakar. **Bestalde**, oinezkoen guneak gehituz doaz eta bizi kalitatearen ideia indartuko da kale honetan. **Gauzak horrela**, Kale Berrian zirkulazio debekatu eta oinezkoentzat utzi behar da.